


Jaien itzulera

Martxan dira denboraldiko lehenengo jaiak, Traña-Matie-nakoak. Baina jaien hasierak zeresana eman du. Donien Atxa altxatu zuten eguaztenean. Biharamunean, garabi batez kendu eta berriro ipini behar izan zuten, oinarria garbitu eta segurtasuna bermatzeko. • 8



"Pandemiak herri mugimenduaren jarduna apaldu du; hori aldatu gura dugu"

Erreportajea • 20 urteko jarduna ospatzeko, Bilgune Feministak Topagune Feminista antolatu du ekainerako; 11n eta 12an izango da hitzordua, Oñatin (Gipuzkoa). Zapatuan, aurkezpen ekitaldia egingo dute Durangaldean. ANBOTO Ane Blancogaz eta Ainhoa Olasogaz batu da Topagunearen aurkezpenaz eta Bilgune Feministaren jardunaz berbetako • 2-3



Frades, prest munduko txapelketarako

Iurreteta • Gurutze Fradesek Ironmanen munduko txapelketa bi lehiatuko ditu aurten. Lehenengo maiztaren 7an izango da, AEBetan. Bigarrena urrian da, Konan. • 26



Igurumen
gehigarria 2022



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa

ESPEZIALIZAZIOA

- Industria-mantentzearen digitalizazioa

Kurtso
Berria

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 9tik 27ra arte





2016ko azaroan Bilgune Feministaren aurkezpena Elorrion.



Durangon, 2014an.

Durangaldeko Bilgune feminista: hogeï urte paradisuak erretzen

Euskal Herriko Bilgune Feministak hamarkada biko ibilbidea ospatuko du; hogeï urte daramatzate lanean eta azken urteetan taldeak sortu dituzte Durangon eta Elorrion

ERREPORTAJEA • A. M.

20 urtez "paradisuak erretzen" aritu direla ospatuko du Euskal Herriko Bilgune Feministak antolakundearen hogeigarren urteurrenean. "Paradisu fiskala, familiarra, paradisu kapitalista heteropatriarkala. Batzuen dena eta batzuentzat soilik eraikia. Argitsua eta bistara polita. Baina hutsa, gezurretakoa", diote. Bide horretan paradisu horiei maskarak kendu, konfliktuan ipini eta deserosoak izatea izan dira gakoetariko batzuk, Ainhoa Olaso Bilgune Feministako kidearen berbetan: "Feminismoak berak egunerokotasunean ukitzen edo zapaltzen gaituzten gaiak azaleratzen ditu, problematika asko ukitzen du, eta, beraz, horri aurre egiteko erreminta da".

2002ko apirilean aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feminista, urtebete lehenago Leitza (Nafarroa) egindako topaketetan mugimendu feminista nazional baten beharra detektatu ostean. Hogeï urteko ibilbidea etorri da gero, zailtasunak zailtasun, hainbat mugarrigaz. Gaur egun, Durangon eta Elorrion dago egituratua Bilgune Feminista. "Elorrion, adibidez, Txoko Feminista zegoen, baina 2016ko azaroan Bilgune Feminista sortu zen, hainbat kidek proiektu politikoa konpartitzen genduelako", azaldu du Ane Blanco elorriarrak. Durangoko Bilgune Feministak ibilbide

luzeagoa du, eta kide biek azpimarratu dute taldeetatik kanpora egon diren kideak egon direla -eta daudela- eskualdean.

Mugarriak

Ibilian ikasi dutela azpimarratu dute Bilgune Feministako kide biek, bai eurek eta baita batu direnek ere. Eta errealtatea aldatu den moduan aldatu dela Bilgune Feministaren jarduna ere. "Errealtatea zapalkuntzen elkargunetik interpretatzen ahalegindu gara urteetan". Horrela, hasieran, beharbada, hainbeste

Elorrion, 2016an aurkeztu zen Bilgune Feminista; aurretik, Elorriko Txoko Feminista zegoen

pisu ez zuten gaiek indarra hartu dute urteekin, eta antolatzekeko modu desberdinekin ere helburu hori dute. "Ahalegintzen gara adin desberdinetara heltzen, baita kolektibo desberdinetara ere, edota emakume migratu eta arrazalatuengana, beharbada egunerokotasunean ez dugulako hainbeste espazio konpartitzen", esan du Olasok. Asteburuan Durangoko Sorginola gaztetxean egingo den ekitaldian, eskualdean egon diren gertaera-mugarriak buruz gogoeta egingo dute, besteak beste.

2019ko azaroan 3.000 emakumetik gora batu ziren Durangon 'Salda Badago' lelopean egin ziren jardunaldi feministetan. Mugimendu feministak bizi duen loraldia erakutsi zuen. Baina hori ez da feministen indarraren isla bakarra. Azken urteetako Martxoak 8ko mobilizazio jendetsuek eta greba feministek ere erakutsi dute mugimenduak duen muskulua. "Ni, pertsonalki, gaztetatik lotu nintzen; besteak beste, beste mobilizazio eredu bat erakutsi zidalak, baina ez hori bakarrik: ikusten duzu feminismoak indarra duela gauzak lortzeko. Adibidez,

Abortuaren Legeagaz asko eragin zen", dio Olasok. "Antolatuta egon ez arren, nik ere parte hartu nuen manifestazio horietan, eta bertako energia hori kontagiatu egiten dela esango nuke", gehitu du Olasok. Emakumeen Mundu Martxaren sorreran Bilgune Feministak izandako indarra ere nabarmendu dute.

Mugimenduaren loraldia

Paradisu artifizial horiek erretzeko ahaleginean, hain zuzen ere, topatu ditu bilguneak kide, aliatu eta bidaide berriak. "Nik uste dut

Oñatin egingo duten Topagune Feministaren aurkezpena egingo dute Sorginolan, asteburuan

borroka feministak, edota feminismoak berak, bere horretan egiteko modu bat duela. Helburu du denontzako bizitza hobe bat

lortzea, bai aldarrietan eta baita praktikan ere; hori dago mahai gainean. Edo denok gaude edo ez", nabarmendu du Olasok. Horrela, Durangaldean bertan existitzen diren -eta azken urteetan existitu diren- talde feministekin har-

Durangaldean bertan existitzen diren talde feministekin hartu-emana edukitzen ahalegindu da Bilgune Feminista

tu-emana edukitzen ahalegindu da Bilgune Feminista hogeï urteotan. "Orokorrean ere, nabaria da geroago eta kide gehiago dagoela sindikatuetan, hezkuntzan, politikan", gehitu du Olasok.

Hogeï urteko jarduna ospatzeko, eta aurrera begira indarrak batzen jarraitzeko, Topagune Feminista antolatu dute ekainaren 11rako eta 12rako, Oñatin (Gipuzkoa).



Durangon, 2014an.

ERREPORTAJEA • A.M.

Ekainean Oñatin egingo den topagune feministaren aurkezpena egingo dute asteburuan Durangon. Eskualdeko aurkezpena izango da eta Bilgune Feministako kide diren Ane Blanco elorriarra eta Ainhoa Olaso durangarra ibili dira berau antolatzen. 'Eztandak dardara gaitzala' lelopean, Bilgune Feministak asteburu osoko egitaraua antolatu du ekainaren 11rako eta 12rako. Asteburu osorako txartelak Durangon egongo dira salgai, 40 euroan. Bizkaian salmenta gune bi egongo dira, Bilbon eta Durangon.

Oñatiko topagunearen aurkezpen ekitaldia duzue zapatuan.

Ane Blanco: Zapatuko helburuetariko bat Oñatiko 'Eztandak dardara gaitzala' topagunea aurkeztea da. Aurkeztu ez ezik, markoa sortzea ere gura dugu. Eskualdean mugarrion izan diren ekitaldiei buruz gogoeta egitea gura dugu, eta burujabetza feministaren dinamika aurkeztuko dugu gero. Aurkezpen ekitaldiak 17:00etan hasiko dira, Durangoko Sorginola gaztetxean.

Ainhoa Olaso: Hiru helburu ipini genizkion Bilgune Feministaren 20. urteurrenari. Alde batetik, ospatzea. Bestetik, eskualdeko sarea edo aliantzak sendotzea. Horrez gainera, 2019ko Salda Badago

“Pandemiak herri mugimenduaren jarduna apaldu du eta hori aldatu gura dugu”

Bilgune Feministaren 20. urteurrenaren harira, asteburuko ekitaldia antolatu du antolakundeak ekainean, Oñatin (Gipuzkoa); Durangaldeko aurkezpena Durangon egingo dute zapatuan, Soginola gaztetxean



**Ane Blanco
Urrejola**
ELORRIO | 1994

**Ainhoa Olaso
Sopelana**
DURANGO | 1996

Durangaldeko talde feministekin hartu-emanak sendotzeko aukera ona dela uste dugu

jardunaldietan aurkeztu zen potentzia eguneratu dugu; 'Bizitzak erdigunean jartzea burujabetza kontua da' dinamika pandemia garaian aurkeztea zen asmoa, baina ezin izan zen. Ordutik, Dekolonialitatea edota zaintzari buruzko ekarpenak gehitu dira.

Ekainaren 11n eta 12an izango da Oñatiko topagunea.

A. O.: Zapatu goizean potentzia feminista aurkeztu eta osatuko da. Ostean, hitzaldiak, tailerrak eta ikuskizunak egongo dira. Ekitaldia egongo da gero, eta, borobiltzeko, kontzertuak: Ginger, Ira, Chocola

te Remix eta DJ Miau. Domekan, Diñagu artisau azoka egongo da, marianito edana eta herri kirolak; bazkari herrikoien ostean, Anariren kontzertua egongo da. **A. B.:** Asteburu osoko plana izango da, indarrak biltzeko, eta sarea eta aliantzak batzeko. Sortzaileei ere lekua egin gura izan diegu, eta emakume musikarien maratona egitea era bada asmoa.

Eta aurrera begira?

A. O.: Zapatuko hitzorduak ekaineko deialdira joatera animatzeko balio izatea espero dugu. Pandemiagaz, herri mugimenduko taldeen jarduna apaldu egin da eta dinamika beste modu batera egiten hasi dira. Hitzordu hauek aldatuta bat emateko bultzada izatea gura dugu, eta 'Eztandak dardara gaitzala' leloak ere hori esan gura du.

A. B.: Durangaldeko talde feministekin batzeko ahalegina ere egingo dugu. Orain artean, bidean kointziditu izan dugu, baina, beharbada, hartu-eman horietan ez da sakondu, eta hau aukera ona izan daiteke horretarako.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta

Andoni Mujika agurtuko dute zapatuan, San Agustin kultur gunean egingo duten ekitaldian

Durangarra euskalgintzan eta kooperatibagintzan erreferente izan zen; apirilaren 4an hil zen, 58 urte zituela

DURANGO • JONE GUENETXEA

San Agustin kultur guneak ekitaldi berezia hartuko du zapatuan. Familiak eta lagunek Andoni Mujika Ulazia euskaltzalea agurtuko dute bertan. Mujika apirilaren 4an hil zen, 58 urte zituela. Durangarra jaiotzez, Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletako zuzendaria

izan zen, baita Leintz bailarako Arizmendi ikastolako presidentea ere. Bagaran eta Lanki ikertegian ere jardun zuen. Durangarrak urte asko egin zuen Debagoienean; Arrasaten lehenengo, eta Eskoriatzan azken urteotan. Berbaroren sorreran "ezinbesteko motorea" izan zela gogoan dute sasoi hartan

elkartea bultzatzen ibili ziren lagunek.

Umiltasunetik sortua

"Familiaren eta bere bizitzan zehar ezagutu dituen pertsonen artean agur ekitaldia antolatzea erabaki dugu. San Agustin beti izan da guretzat aterpe", azaldu du Miren Erdoizak, Mujikaren ilobak. "Argi genuen osaba nor zen, eta baita bere bizitzan ezaguturiko pertsonen agurtzeko aukera eman gura geniola. Umiltasun horretatik sorturiko ekitaldia izango da. Berarentzat zutabeak izan ziren euskalgintza, baserria, kooperatibagintza, ikastolak, eraldaketa soziala eta familia. Beraz, esparru horietan ibili den jendeari egin diogu gonbidapena", esan du Erdoizak.



Ia 500 dantzari Landako Gunean dantzarako prest

Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, Durangoko L'Atelierrek egun osoko egitaraua prestatu du zapaturako

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko L'Atelier dantza eskolak egitarau mardula prestatu du Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Dantza eskolan dabil-tzan ia 500 ikasleek emanaldiak eskainiko dituzte zapatuan, Landako Gunean eta Sanagustinalde kalean. Landako Gunean atea 10:00etan zabalduko dituzte eta 10:30ean eskainiko dute lehenengo dantzaldia. Ballet ikasleek, hiru urtetik gorako ikasleek eta helduek eskainiko dute saioa. Gero,

eguraldiak baimentzen badu, eta badirudi halantxik izango dela, Sanagustinalde kalera joango dira ballet saioa eskaintzera. Mañaria erreikaren gaineko barandetan egingo dute balleta. 12:15ean izango da hori. Arratsaldeko saioa Landako Gunean egingo dute berriro. Atea 16:00etan zabalduko dituzte, eta 17:00etan dantza saio garaikideak, jazz, hip-hop eta breakdance modalitateak eskainiko dituzte. 20:00etan, DJ batek girotuko du Landako Gunea.



L'Atelier dantza eskolako eta Durangoko udaleko arduradunak.

Durangoko adinekoek patinete elektrikoak eta bizikletei diete beldurrik handiena kalean

Bide Indarkeriari Stop elkarteak oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetzan zelan hobetu aztertu du herritarrekin

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Bide Indarkeriari Stop elkarteak herriko gazte eta adinekoekin batu dira oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetzan hobetzeko asmoz. Prozesu horretako ondorioak martitzeneko prentsaurrekoan azaldu zituzten. Adinekoen kasuan, bizikletek eta geroago eta gehiago ikusten diren patinete

elektrikoek eragiten diete "beldurrik handiena". Patine elektrikoek kasuan, "izua" ere eragiten diete batzuetan, autoeskola bateko irakaslea den Miguel del Valleren esanetan. Proiektu honen barruan, del Vallek hainbat batzar egin du nagusiekin. "Askok esperientzia desatseginak izan dituzte", esan zuen.

Oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetzan sortzen diren arazo batzuek ezjakintasuna dute sorburu. Hau da, herritarrek ez dute araudia ezagutzen. Horri guztiari aurre egiteko erreminta heziketa dela adierazi dute, adin guztietan. Udara begira, kontzientziazio kanpainak sustatzeko ere eskatu die elkarteak kide den Rosa Trinidadek udal ordezkariari.

Bestalde, Jorge Varela zinegotziak argitu zuen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak 2020 amaieran onartu zuela mugikortasun pertsonalerako ibilgailuen gaineko araudia, eta araudia ordenantzetara egokitzeko lanean ari direla orain udalak.

Ludoteka eta Gaztelekua asteburuan zabalduko dituzte

DURANGO • J.D. / E.H.

Gizarte, hezkuntza eta kultura eragileen arteko "sinergiak" aprobetxatuta, Durangoko Udalak "kultura eta gazte polo berri bat" sortu gura du Intxaurren-doko instalazioetarako. Azken hileetan, instalazioetako espazioak berreskuratu eta handitu egin dituzte herriko elkarteentzat, eta asteburu honetan pauso bat gehiago emango dute umeentzako ludoteka eta gazteleku zerbitzua estreinatuta. Eta bada

gehiago ere. Lokalak alokatu egin ahal izango dira, instalazioetan bilerak egiteko. Horrez gainera, datozen hileetan pinpong mahaia ipiniko dituzte.

Bestalde, Durangoko Udalak Gazte Informazio Bulegoa (GIB) zabaldu du Intxaurren-doko instalazioetan, gazteei ikasketa eta ikastaroen, beken, lanaren, etxebizitzaren, mugikortasunaren, aisialdiaren eta abarren berri emateko. Doako zerbitzua izango da.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko apirilaren 29a
20. urtea - 890. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Aldartek LGBTI errefuxiatuei buruzko berbaldia eskainiko du maiatzaren 4an

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak arrazakeria-
ren eta xenofobiaren kontrako
astea antolatu du. Aurtengo
edizioaren helburua pertsonak
emigratzera bultzatzen dituz-
ten arrazoiak ikusaraztea da.
Egitasmoaren bultzatzaileek
diotenez, "Munduan migra-
zio-fluxuak areagotzearen arrazoi
bakarrak ez dira globaliza-
zioa eta planetako eskualdeen
arteko lotura, desberdintasun
ekonomikoak edo pobrezia; bes-
te hainbat arrazoi ere badago".
Horien artean, "giza eskubideen
urraketak, jazarpen etnikoa, er-
lijioa, politikoa edo orientazio
sexualagaitikoa" aipatu dituzte.
Maiatzaren 4an berbaldi bat es-
kainiko dute herrialdea abando-
natzera eta asiloa beste nonbait
eskatzera behartutako LGBTI
errefuxiatuen errealitatea ikus-
sarazteko. Berbaldia 16:00etan
izango da, San Agustin Kultur-
guneko sarreran. Aldarte elkar-
teak eskainiko du.

Charo Carracedok, prostituzioa abolitzeko legea idazten dabilen kideak, berbaldia eskainiko du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Andereak elkarrekin Charo Car-
racedo gonbidatuko du Duran-
gora berbaldi bat eskaintzeko.
Carracedo Prostituzio Sistema
Abolitzeko Lege Organikoa
(LOASP) idazten dabilen kideeta-
riko bat da eta maiatzaren 4an
lege horri eta prostituzioaren
abolizioari buruzko berbaldia
eskainiko du Andragunean.
LOASP legeak honako helburu
hauek ditu Andereaken berbe-
tan: "Prostituzioan aritu diren
eta prostituziotik bizirik irten
duten emakumeen eskubideak
bermatzea eta sexu-esplotazioa-
ren industria eta putazainen
zigorgabetasuna amaitzea". Ber-
baldia maiatzaren 4an izango
da, Andragunean, 19:00etan.

Bestalde, Andereak elkar-
teak jakinarazi du maiatzaren
28an manifestazio bat egingo
dela Madril (Espainia) lege
abolizionista defendatzeko, eta
autobus bat egongo dela Duran-
gotik hara joateko.



2018ko Euskaraldiko ekitaldi bateko irudia.

Durangon batzarrera deitu dute Euskaraldiaren erronkak azaltzeko

Batez ere herriko elkarte eta taldeak deitu dituzte ekimenean parte hartzera

DURANGO • JONE GUENETXEA

Aurten Euskaraldiaren hiruga-
rren edizioa egingo da Euskal
Herri osoan, azaroaren 18tik
abenduari 2ra. Ariketa sozial
erraldi honek hizkuntza ohitu-
rak aldatzea du helburu, ahalik
eta euskarazko hartu-emanik
gehien sorraraziz egun horietan,
eta aurrerantzean ere ohitura
horiei eustea da asmoa. Duran-
gon Euskaraldiaren batzordea

martxan ipini berri dute. Du-
rangarrei hirugarren edizioaren
aurkezpena egitea izango da
lehenengo pausoa. Aurkezpen
batzarra maiatzaren 5ean izan-
go da, eguna, 19:00etan, Udal
Euskaltegiko Berbagunean (Saibi
kalea 10). Batzar horretan, alde
batetik, Euskaraldiko edizio
honen nobedadeak azalduko
dituzte, eta, bestetik, Durangon
herri batzordeak egin beharreko

lanak zeintzuk diren azalduko
dute. Interesa duenak bertan
zelan parte hartu dezakeen ere
esango dute. Antolatzaileek azal-
du dutenez, durangar guztiak
daude bertara gonbidatuta: "Dei
berezia egiten diegu herriko
elkarte eta taldeetakoiei, horien
parte hartzea eta hartu-eman
garrantzitsua izango delako
Euskaraldiko edizio berria arra-
kastatsua izan dadin".

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Aste irekien jardunaldia
•Automatizazioa eta Robotika Industrial	Maiatzak 7 11:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Maiatzak 7 11:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Maiatzak 7 11:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa	Maiatzak 7 11:00
•Mekatronika Industrial	Maiatzak 7 11:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

GEROA EREIN



Zergatik aukeratu zenuen Fabrikazio Mekanikoko Diseinua Heziketa Zikloa?
Gradu bat egiten hasi nintzen, baina ez nuen gustukoa eta mekatroni-
kako zikloa egin nuen. Bertan, oso gustura ibili nintzen eta Dual eredu
egiteko aukera izan nuen. Ondoren pandemia garaia zelako eta egoera nahiko
xelebrea zela eta, beste ziklo bat egitea pentsatu nuen nire ikasketak konple-
toagoak izan zitezkeen, eta Diseinuko zikloa egitea erabaki nuen.

Zergatik MGEP?

Lehengusuak eta lagun askok bertan ikasi zuten, eta oso giro ona eta euskal-
duna zegoela esan zidaten eta enpresetara begira ere harreman asko zutela,
beraz bertan egitea erabaki nuen.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginetuz funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Zikloan zehar erronka eta proiektu txikiak egiten joan gara, bukaeran erronka
komplexuago bat egiteko. Erronka guztiek, ikasitako gaiekin eta bizitza erreale-
ko kasu praktikoekin lotura dute eta politak dira. Adibidez, skate baten taula
eta truck-ak egin ditugu.

Esperientzia hau oso positiboa izan da taldean lan egiteko aukera ematen
duelako eta jende desberdinekin nola funtzionatu ikasten duzuelako.

Nolako izan da zure DUALa?

DUALa Biele enpresan egin dut, bi zikloetan, beraz, ia hiru urte daramatzat
bertan. Hasieran laguntzaile bat jarri zidaten gidatu, lagundu eta lan mota
desberdinak irakasteko. Baina segurtasuna hartu ahala gauzak nire kabuz
egiten utzi didate eta hórrela asko ikasi dut. Muntai mekanikoan aritu naiz
orain arte, eta makina mota guztietatik pasazaten zaituzte, ahalik eta gauza
gehien ikasteko.

Planoak dituzu, eta zure erara eta erritmora muntatzen joan behar duzu, eta zalantza bat izanez gero beterean
galdetu eta listo.

Beti egoten da arazoren bat soluzionatu beharra, eta hori polita da, azken batean erronkak dira eta gustura egiten ditut.

Bielen eginiko lanean, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Diseinuko zikloan ikasitakoa, oso erabilgarria izan zait muntairako, egun osoa planoak ikusten eta ulertzen gabiltza,
eta 3D-ko multzoak ere izaten ditugunez bertan neurriak hartzeko eta gauzak egin ahal izateko ere oso baliagarria
egin zait.

Zein asmo duzu hurrengo kurtsorako?

Aurrera begira, lanean jarraitzeko gogoia dut, eta bertan jarraitzea gustatuko litzaidake oso gustura bainago dagoen
giroarekin, egiten dudun lanarekin eta lankideekin. Gainera martxa hartua dut dagoeneko.



Julen Badiola Olarte
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Durangoko Udalak Eremu Baxuko Guneko baldintzak malgutu ditu, isunak gutxituta eta autoak sartzeko baimena 45 minutura igota

Ordenantzako moldaketak aurrera egin du EAJren, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen botoekin. PSE-EEK kontra bozkatu zuen eguaztenean egindako osoko bilkuran

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak moldaketa puntual bat egin du Emisio Baxuko Guneari dagokion ordenantzan. Araudia malgutu du, eta asteen egindako osoko bilkuran onartu du moldaketa berria. Hainbat dira aurrerantzean aldatuko diren puntuak. Dena dela, Aritz Bravo EH Bilduko zinegotziak hiru aldaketa

nagusi azpimarratu ditu. Batetik, Alde Zaharrean zein oinezko gune barruan autoa erabiltzeko gehieneko denbora 30 minututik 45 minutura igo dute. Horrek egoiliarrei eta komertzioei eragingo die gehienbat. Bestetik, domeketako ordutegia moldatu dute. Orain arte, autoa gauerditik aurrera baino ezin zen aparkatu Eremu Baxuko

Gunean; baina, aurrerantzean, 22:00etatik aurrera aparkatu ahaliko da. Azkenik, isunei loturiko moldaketa dago. Baimenduriko ordutegitik kanpora Eremu Baxuko Gunean sartzen denak ez du kategoria larriko isunik izango, aurrerantzean arau-hauste arin lez tratatuko delako. 200 euroko isuna barik 90 eurokoa izango da.

Ordenantzako moldaketa honek udaleko hiru alderdi nagusien babesagaz egin du aurrera. Izan ere, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak bultzaturiko moldaketa honek EAJren babesarekin ere izan du. Jeltzaleek adierazi dute ez daudela "gutziz ados" ordenantzagaz, euren berbetan araudiak ez duelako "arazoa konpontzen". Baina "aurrerapauso bat" dela iritzita, alde bozkatu dute. PSE-EEK kontra bozkatu du, araudia "partxe bat" dela iritzita.



Sanagustinalde kalea Eremu Baxuko Guneko kaleetarikoa bat da.

Gauero Udan eta udalekuak, Zornotzako umeak hartzeko prest

Aisialdi programetan izena emateko epea zabalik dago, maiatzaren 11ra arte. Udalekuak 4tik 15 urtera arteko ume eta gazteentzat antolatuko dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak aisialdi zerbitzu bi prestatu ditu udara begira: Udaleku irekiak 4tik 11 urtera arteko umeentzat izango dira eta Gauero Udan 11tik 15era artekoentzat.

Udaleku irekietan, lau txanda edo aste izango dira aukerak. Ekainaren 27tik uztailaren 1era, uztailaren 5etik 8ra, uztailaren 11tik 15era eta uztailaren 18tik 22ra. Ordutegiari dagokionez, aukera bi izango dira: A txanda (9:00-13:00) eta B txanda (9:00-15:00). Udalekuak Larrea ikastetxeko egoitzan edo

udal kirol eta kultura egoitzetan garatuko dituzte, programaren arabera.

Gauero Udan

Ekainaren 27tik uztailaren 8ra bitartean egingo dute, 09:00etatik 14:00etara, nahiz eta ordutegiak luzatu egin daitezkeen ekintzen arabera. Ekintzarik gehienak Zelaletan eta udal kirol eta kultura egoitzetan egingo dituzte. Umeek igeri egiten jakitea ezinbestekoa izango da.

Izena emateko, Gazte Informazio Bulegora joan beharko da maiatzaren 11 baino lehenago.



Zornotzan 2020an egindako udalekuak.

Heriotzari loturiko errituak ezagutzeko bisita gidatua zapatuan, Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Zelan ulertu izan da Euskal Herrian heriotza? Bada, galdera horri erantzun guran, Euskal Herriko erritu eta ohiturak ezagutzeko bisita gidatua egingo dute zapatuan, Garain. Bisita gidatua Momoiotiko San Juan basilikan hasiko dute, bertako nekropolian, 10:00etan. Behin Momoiotiko inguruak aztertuta, bisita gidatuak Garaiko kanposantuan izango du segida.

Bisita gidatua doakoa da, baina plaza kopurua mugatuta dago. Bertaratu gura duenak mezua bidali beharko du 639 400 786 telefonora. Gerediaga elkarteak, Garaiko Udalak eta Berbalagunek antolatu dute egitasmoa.

1960an jaioetako bazkaria egingo dute lurretan, datorren maiatzaren 7an

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretan, 1960an jaioetako bazkaria egingo dute, datorren maiatzaren 7an. Hitzordu zabal da antolatutikoa. Izan ere, Iurretan jaioetakoak zein herrian jaio ez arren bertan bizi diren emakume eta gizonak batu daitezke bazkarira. Baita euren bizitza soziala Iurretan egiten dutenak ere, nahiz eta herrian jaioetakoak izan ez edo bertan bizi ez. Bazkaria La Gipuzkoana tabernan egingo dute, 15:00etan.

Bazkarira joan gura dutenek anttonarrospide@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar dute edo 687 54 37 36 telefono zenbakira deitu, maiatzaren 2a baino lehenago, antolatzaileek azaldu dutenez.

Ludoteka berriro zabalduta, aisialdi eskaintza indartu dute lurretan

Ludoteka 12 urteko neska-mutilei zuzenduta dago eta astelehenetik barikura bitartean egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era

IURRETA • AITZIBER BASAURI


Iurretako Udalak berriro zabaltu ditu Ibarretxe Kultur Etxeko Ludotekako ateak, haur eta gazteen aisialdiari bultzada emateko asmoz eta kultur etxeak, bibliotekak eta Etxegok emandako eskaintza indartzeko.

Bertan, hainbat txokoz osaturiko gune bat sortu dute, haurrek euren garapen sortzaile eta ludikoaren bideari ekiteko aukera izan dezaten. Hala nola pintura eta marrazketa txokoa, mahai-jokoen txokoa, irakurketa-txokoa, eta sorkuntza- eta jolas-txokoa izango dituzte. 12 urtera arteko neska-mutilei zuzenduta dago, eta aste barruan dago zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era.



Hainbat txokoz osatutako gune bat sortu dute Ibarretxe kultur etxean.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheak -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.



keinu

- Optometrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio
neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoctometriaazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, beheak 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTA ESTETIKOA
www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zaindus

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Donien Atxa jasota, hasi dituzte San Prudentzio jaiak Traña-Matienan; pandemia osteko lehenengo parranda

Eguaztenean hasi zituzten jaiak, Donien Atxa jasota. Txosnagunea gaur zabalduko dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaldiaren ondoren, bueltan dira Traña-Matienako San Prudentzio jaiak. Eguaztenean, San Prudentzio bezperan, Traña-Matienako kuadrillek Donien Atxa jasota eta urteko pertsonaia izendatuta eman zieten hasiera pandemia osteko lehenengo jaiei. Aurten, Miguel Angel Munitxa abadiñarrak jaso

du jai batzordeak emandako aitortza.

Jaien hasierako anekdota Donien Atxagaz gertatu da. Eguaztenean txopoa jaso eta gero, oker-oker eginda geratu zen. Hurrengo egunean, udal ordezkariak Donien Atxa zuzentzea erabaki zuten, garabi bat erabilita.

Abadiñarrek gogotsu eman diete hasiera sanprudentzioei, eta

bi astez jai egitarau zabalaz gozatzeko aukera izango dute. Adin eta gustu guztietarako egitaraua antolatu dute Traña-Matienan, eta, pandemia aurretik lez, mozorro eguna, herri bazkaria, gazte eguna, jubilatuen bazkaria eta paella eta tortilla txapelketak izango dituzte. Baita bertso saioa, rock kontzertuak, Djak, umeentzako jolasak, magia ikuskizunak eta herri kirolak ere, besteak beste.

Txosnetako txupinazoa

Ofizialki jaiei hasiera eguaztenean eman zieten arren, txosnagunea gaur arratsaldean zabalduko dute. Abadiñoko sokatira taldeak jaurtiko du txosnaguneko txupinazoa, eta, ondoren, parrillada izango da bertan. 22:00etan hasita, Marabao y Tú, Pedrá eta Kaos Etiliko taldeen kontzertuak egongo dira.



Jendetza batu zen jaiei hasiera emateko ekitaldian.

Aurten, San Antonio egunean, azoka egingo dute Urkiolan

Urte biko etenaldiaren ondoren, azoka egingo dute berriro. Dagoeneko martxan da azokarako izen-ematea

ABADIÑO • E.H./M.Z.

Abadiñoko Udalak iragarri duenez, datorren ekainaren 13an San Antonio eguneko azoka egingo dute Urkiolan. Ohiko eran antolatzea itxaroten dute: nekazaritza eta abeltzaintza feriagaz, txosnaguneagaz, erromeriagaz, kultur proposamenekin eta kale animazioagaz. Horrez gainera, jaieguna ekainaren 19an ere errepikatuko dutela azaldu dute udal ordezkariak.

Programazioa zarratu barik dagoen arren, udalak zabalik ipini du nekazaritza eta abeltzaintza postuetan zein txosnetan izena emateko epea. Maiatzaren 27ra arte egongo da postuetan izena emateko epea. Horretarako, udal bulegoetara edo haz@abadiano.eus helbidera jo beharko da. Izen-ematea ekainaren 13rako eta 19rako, bietarako egin beharko da. Hau da, eskatzaileak derrigorrez ipini beharko du postua egun bietan.



Ekainaren 13an ospatzen da San Antonio eguna.

Elorriko leku bi ipini dituzte hondakin txikiak birziklatzeko

Elorrioko Udalak Nizeto Urkizuko aparkalekuan eta Esteibarlandako parkean ipini ditu birziklatze puntuak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hondakin txikiak birziklatzen laguntzeko helburuagaz, Elorrioko Udalak puntu txiki garbi bi instalatu ditu Nizeto Urkizuko aparkalekuaren ondoan eta Esteibarlandako parkean. Hori horrela, elorriarrek edukiontzi espezifiko bi izango dituzte CDak, DVDak, tinta-kartutxoak, aparatu elektrikoak eta kafe-kapsulak uzteko, besteak beste.

Udaletik jakinarazi dutenez, erraz berrerabili edo birziklatu daitezkeen hondakinak dira puntu honetan batzen direnak. "Hondakin txiki hauek ez dira behar den moduan birziklatzen, batzuetan ez dagoelako edo ez

dakigulako nora bota", azaldu dute udaletik.

Elorrioko Udalak ingurumena zaintzen eta ekonomia zirkularra bultzatzen jarraituko du

Puntu txiki garbi bi hauek ipinita, ingurumena zaintzen jarraitzeko eta ekonomia zirkularra bultzatzeko beharrezkoak diren baliabideak ipintzen ditu udalak herritarren eskura. "Hondakinen kudeaketan beste pauso bat eman dugu, Elorrio ingurumenarekiko berdeagoa eta arduratsuagoa izateko", azaldu dute udal ordezkariak.

Atxondoko herrigunetik kamioiek aurrera eta atzera jarraitzen dutela salatu dute

Herritar talde batek salatu du Atxondoko Udalak ez duela bete herrigunetik kamioien joan-etorria erregulatzeko alkate dekretua, eta antolatzen hasi dira horri aurre egiteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herritar talde batek salatu du Atxondoko Udalak ez duela bete herrigunetik kamioien joan-etorria erregulatzeko alkate dekretua, eta, hori dela eta, seinaleak eta dekretuaren panelak ipini ditu Apatamonasterioko herrigunear. Apirilaren 5ean, martxoaren 30eko datagaz, udalbatzan alkate dekretu bat onartu zuten AHTko kamioiak herrigunetik ateratzeko. "Egunak pasatu dira eta kamioiek berdin jarraitzen dute", azaldu du herritar talde horrek ohar batean. Udalaren "utzikeria" salatu dute eta pausoak ematen hasi dira: seinaleak ipini dituzte herrigunear, eta dekretua buzoirik buzoiz zabaldu dute herritarrek informatzeko.



Herritar talde batek seinaleak ipini ditu.

www.gualbiasesores.com

**Bezeraoa, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Ezkurdi Jai-Alai zesta eskolakoak Izurtzako frontoian entrenatuko dira Durangokoa konpondu bitartean

Zesta eskolakoak gustura dabilta Izurtzan, Durangotik gertu dagoelako eta frontoi luzea delako

IZURTZA • J.D.

Durangoko pilotalekua konpondu bitartean, han entrenatzen diren pilotari eta elkarrekin beste toki batera lekualdatu behar izan dute. Ezkurdi Jai-Alai zesta-punta eskolako, esaterako, Izurtzako pilotalekua izango du ordezkio etxea datorren urte hasierara bitartean.

Izurtzara joatea hasieratik izan zuten buruan. Alde batetik, gertutasunagaitik. "Durango ondo-ondoan dago eta joan-etorriak errazak dira", adierazi du Pedro Mari Garcia zesta eskolako arduradunak. Bestetik, Durangokoagaz batera eskualdeko frontoirik luzeena da. Durangokoak 52 metro ditu eta Izurtzako hor inguruan ibiliko da, 14 koadro pasatxogaz. "Nagusiek eskertzen dute frontoi luzean entrenatzea", esan dute.

Izurtzako udalagaz hartu-emanetan ipini, eta haren oniritzia jaso zuten. Martitzen eta eguen arratsaldeetan entrenatzen dira, 17:30ean hasita, hiru orduz. 15 zestalari ibiltzen dira bertan. 12 urtez azpiko umeak Kurutziaga ikastolako frontoian entrenatzen dira. Beste frontoi batzuetan ere ipini zuten interesa: Berrizkoan, Gernikakoan, Markina-koan eta Lekeitiokoan, hain zuzen ere. Baina denetan arazo bera aurkitu zuten: erabilgarritasuna. Hau da, ez zegoen toki nahikorik.

Pilota eskolako gazteek beste inoiz ere jokatu izan dute Izurtzan. "Orain 20 bat urte, orduko zestalariak Izurtzan partiduak jokatu zituzten, Aldundiak antolatutako jardunaldietan", gogoratu du Garciak.



Ezkurdi Jai-Alai zesta eskolako zestalari eta arduradunak martitzenean Izurtzako pilotalekuan.

Otxandion Fundazio eguna eta herri bazkaria, Mirugainen urteurrena ospatzeko

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Mirugain Mendi Taldeak 50 urte betetzen ditu aurten eta hainbat ekintza antolatu dute urteurrena ospatzeko. Esaterako, maiatzaren 7an Fundazio Martxa egingo dute; 07:30an martxa laburra hasiko da, eta 10:00etan luzea. Ekimen hau urterokoa da, Mirugain sortu zen egunaren bueltan antolatzen dutena, baina aurten goak nobedade bat izango du: martxaren ondoren, 15:00etan, denei zabalik egongo den herri bazkaria egingo dute. Bazkari-rako txartelak Danoenak eta okindegian eskuratu daitezke. 17:00etan umeentzako jolasak egongo dira. Argazki erakusketak ere antolatu dute. Asteburuan egongo da ikusgai.

Eskaintza kulturala areagotzeak jaso du botorik gehien Mañariko aurrekontu parte hartzaileetan

Boto kopuru osoaren %34,5ek herriko kultur eskaintza handitzearen aldeko aukeraketa egin du



Udalak 14.000 euro ipini ditu aurrekontu parte hartzaileetarako.

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak prozesu parte hartzaileak egin du herritarrekin, aurrekontuetako 14.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko. Hile biko prozesuaren ondoren, herritarrek lau proposamen artean aukeratu ahal izan dute. Guztira, 38 boto egon dira eta aukerarik bozkatuena eskaintza kulturala handitzearena izan da; %34,5ek egin du horren alde.

Bigarren proposamenik bozkatuena honako hau izan da: garraioa. Hau da, dirua herrian auzotaxia edo ibilgailuak partekatze sistema edo antzerakoak ipintzeko erabiltzea. Aukera honek botoen %26,4 jaso du. Ondarea hobetzeko aktuzioak

hirugarren tokian geratu dira botoen %19,9gaz. Atal honetan sartzen ziren harrobiko ondarea zaintzea, Eskuagatzeko presarako bidea garbitzea eta antze-

Bigarren proposamenik bozkatuena auzotaxia edo ibilgailuak partekatze sistema ipintzea izan da

rakoak. Azkenik, herriko segurtasuna hobetzeko atalak botoen %19,1 jaso ditu. Atal honetan sartzen dira, besteak beste, puntu beltzak argitzea eta antzerako aktuzioak.

Mallabian makarroiak batzen dabilta Lesboreko errefuxiatuei bidaltzeko

MALLABIA • J.D.

Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundeak kanpaina solidario bat hasi du Greziako Lesbos uharteko zelaletan dauden errefuxiatuei elikagaiak bidaltzeko, eta Mallabiak bat egin du ekimenagaz, Ermua, Eibar, Elgoibar, Deba eta Soralue herriei batera. Mallabian hodi formako makarroiak batzen dabilta. Bilketa guneak udaletxean, liburutegian eta eskolan ipini dituzte eta gaur da azkeneko eguna ekarpenak egiteko.

Aurten laugarrenez antolatu dute ekimena eta iazko kopurua gainditzea dute helburu. 2021ean zortzi tona elikagai eta ia 9.000 euro batu zituzten.



Musika eta Literatura ikuskizuna

Maiatzak 11, asteazkena, 19:30etan
Sarrera gonbidapenarekin

Maiatzak 2tik aurrera eskuragai Bibliotekan
Maiatzak 2-3 erroldatuak
Maiatzak 4tik aurrera ez erroldatuak



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Berrizko Udalak eta Berrizko Merkatarien Elkarteak kanpaina berri bat antolatu dute herriko komertzioak bultzatzeko. Kanpainak 8.000 euroko aurrekontua du eta hamazazpi saltokik bat egin dute. Honako hauek dira: Asibar arropak, Boutique Luisa, Estanko Etxebarria, M. Bartolome farmazia; Izaro estilistak; keinu optometria zentroa, Kimu loradenda, Mikel Kirolsport, Maribel ile-apaindegia, Puerto ile-apaindegia, Oreka fisioterapia, Berriz dental, Ibaiondo burdindegia, Agurtzane ile-apaindegia, Itziar estetika zentroa, Argazki Julen eta Begoña Hidalgo hortz klinika. Establezimendu horietan, berriztarrek 45 euroko erosketa edo zerbitzua jasoko dute, 30 euroko bonu baten truke. Bonuak kanpainara atxikitako establezimenduetan erosi daitezke. Pertsona bakoitzak bonu bi erosi ditzake, gehienez.

Argazkigintza ikastaroa

Bestalde, Berrizko Udalak argazkiak smartphone gailuekin hartzeko ikastaroa antolatu du herriko gazteentzat. Ikastaroa euskara hutsean izango da eta telefono mugikorrak egiten diren argazkien kalitatea hobetzea izango du helburu. Ikastaroa

Berrizen kanpaina berria ipini dute martxan herriko establezimenduei laguntzeko

Bonuak salgai daude eta ekainaren 3ra arte trukatu daitezke. 530 bonu ipini dituzte salgai; 30 eurogaz, berriztarrek 45 euroko erosketa egin dezakete



Udal agintariek eta Merkatarien elkarteko kideek elkarlanean antolatu dute kanpaina.

DBHko ikasleentzat zuzenduta dago. Maiatzaren 20an egingo dute, Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Udalak jakinarazi duenez, ikastaroan argazkilartzaren oinarriko kontzeptuak

landuko dituzte. Argia, konposizioa eta kolorea, besteak beste. Izena emateko epea maiatzaren 13ra arte dago zabalik euskara@berriz.eus webgunean edo 946 225 369 telefonoan.

Berrizburuko skate parkea handitzen hasi dira

Lanek hile bi irautea aurreikusten dute udal ordezkariak; 48.400 euroko aurrekontua dute obretarako

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udala Berrizburuko skate parkea handitzen eta hobetzen hasi da. 48.400 euroko inbertsioa egingo du horretarako; horrez gainera, Aldundiak 129.874 euroko diru laguntza emango dio udalari, eta, aldi berean, Iñaki Lejarreta BTT zirkuituaren hobekuntza eta pump track zirkuitu berria ere finantzatuko dira. Skate

parkearen kasuan, obrak hile bi barru amaitzea aurreikusten dute. Egungo espazioa berritzeaz gainera, elementu berriekin hornituko dute gunea. Proposatutako diseinuak erabiltzaile hasiberrientzat eta maila aurreratua dutenentzat balio du, eta elementu berri eta desberdinak izango ditu. Lanek irauten duten bitartean espazioa itxita egongo da.



Skate parkea zelakoa izango den erakusten duen irudia.

1937ko apirilean Santamañezarren hildakoak gogoratu dituzte Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Apirilaren 25ean 85 urte bete ziren 30 bat gudarik eta milizianoek Santamañezar mendian faxisten kontra borrokatu eta bizia galdu zutenetik. Hori dela eta, Zaldibarko herritar talde batek gertaturikoa gogoratzeko ekitaldia egin zuen. Santamañezar gainera igota, herritarrek ikurrina ipini eta eskumako argazkia atera zuten. Gero, menditik jaitsita, lore eskaintza egin zuten udaletxe pareko plazan. Azkenik, kalejira bat eginda Castet elkartera joan ziren, bertara joan dakoekin luntxa egiteko.



Tontorrera igo eta ikurrina ipinita, argazkia atera zuten.

Zaldibarko EH Bildu eskolako etxebizitzak egitearen kontra

ZALDIBAR • A.M.

EAJren eta PSEren aldeko botoekin, eskola inguruetan etxebizitzak eraikitzeke proiektua onartu dute apirilako ohiko bilkuran. "Etxebizitza sozialak" egitearen alde agertu den arren, etxebizitza horiek Autonomia kalean egiteak eskolako patioa "hipotekatuko" luke, EH Bilduren usteetan. "Etxebizitza horiek egiteak eskolako jolastokia handitzea edo hau moldatzea eragotziko luke, eta patioak egun duen tamaina izaten jarraituko luke", diote. Horrez gainera, hezkun-

tzak eta eskolak alderdiarentzat duten garrantzia azpimarratu dute ohar baten bitartez. "Haurreskola eta eskolako patioa eraldatzeko, prozesu parte hartzaileak egin ziren; horrez gainera, patioaren birmoldaketaren alde 1.000 sinadura baino gehiago aurkeztu ziren udalean 2020ko otsailean, eta udaleko ordezkariak ez dira sinaduren bultzatzaileekin batu", gaineratu dute. EH Bilduren esanetan, udalean proiektu honen aurkako 144 alegazio aurkeztu dira, eta bakarra onartu.

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

Lanbide Heziketa

leartibai
ikastetxea

94 616 90 02
info@leartik.eus
www.leartik.eus

EMAN IZENA

Zatoz ATE IREKIETARA

MAIATZAK 12 eta 19, 17:00

Aforo mugatuak!

Kontseilu Sozialistak Maiatzaren Lehenean mobilizatza deitu du

Domekan manifestazioa egingo dute. Martxak 12:00etan irtengo du Ezkurditik



Kontseilu Sozialistak iazko Maiatzaren Lehenean egindako mobilizazioa.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Krisi kapitalista garaian sozialismoa eraikitzen lelopean, Durangaldeko Kontseilu Sozialistak Maiatzaren Leheneko aldarrikapenak kaleratuko ditu. Domekan manifestazioa egingo dute Durangoko Ezkurditik hasita. 12:00etan ekingo diote herriko kaleak zeharkatzeari.

Bestalde, sindikatuek hiriburuetan egingo dituzte mobilizazioak. LABek, adibidez, manifestazioa egingo du, 11:00etan, Bilboko Zabalburu plazatik hasita. Ondoren, 13:30ean, Bilbo Zaharreko giroa berotuko du musikagaz eta txikiguneagaz. ELAk eta CCOOk, antzera. Manifestazioa egingo dute, Bilboko Jesusen Bihotza plazan hasita, 11:30ean.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Ikusgarritasuna

Apirilaren 26a Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko eguna izan dugu. 2008. urtetik aldarrikapen eguna dugu hau, biztanleria lesbikoaren giza eskubideen aldeko borrokaren inguruan sentsibilizazio eta kontzientizazio eguna.

Ikusgarritasun lesbikoa oso garrantzitsua da sexu-orientazio horrekin identifikatzen diren pertsonentzat, indarkeria, diskriminazioa eta aurreiritziak bezalako estigma negatiboekin ez seinalatzeko eskubidea erabiltzea ahalbidetzen baitu.

LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako indarkeria areagotzen duten estereotipo, arau kultural eta jarrera bereizgarriak oraindik nabarmen dira gure gizartean. Honek pertsona hauek diskriminazio egoerak jasatea dakar, sexu orientazio eta identitate estigmaren erruz.

Durangoko Udaletik, aldarrikapen egun hau eta LGTBIQ+ kolektiboaren inguruko aldarrikapen egun hauek gure gain hartzeko asmoz, lesbianismoaren ikusgarritasunaren inguruan hainbat ekitaldi eta kanpaina egingo ditugu. Alde batetik, estereotipo eta aurreiritziak hausteko nahiaz, eta lesbianen erabateko eskubide berdintasuna eskatzeko asmoz, kanpaina bat egingo da. Bestetik, maiatzaren 6an, Zinegoak, Bilboko Gaylesbians Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren film laburren proiektzio ekitaldia izango dugu, San Agustin Kulturunean, 19:00etan.

EH Bildutik argi dugu: LGTBIQ+ kolektiboaren errebin-dikazio egun eta ekitaldiak geure egingo ditugu, gure babes guztia eman eta gogor oihukatuz, Iraultza Feminista izango baita edo ez da izango.

Durungaldea asteen

Durangoko jolas librerako guneak 18.000 erabiltzaile izan ditu lehenengo urtean

DURANGO | Udaberria heltzeagaz batera, udalak amaitutzat eman du Durangoko jolas librerako gunearen lehenengo edizioa, eta datorren denboraldia planifikatzen hasi da. Udaletik azaldu dute-nez, gunea zabalik egon den hiru hile eta erdian 18.000 erabiltzaile inguru pasatu dira bertatik.

Dagoeneko eman daiteke izena Berrizko eta Iurretako udalekuetan

DURANGALDEA | Berrizko eta Iurretako gaztetxoek dagoeneko aukera daukate udalekuetan izena emateko. Berrizko udalekuak uztailearen 5etik 22ra izango dira eta maiatzaren 10era arte egongo da izena emateko aukera. Iurretako Udalak antolatutako 'Pirata Eskola' uztailearen 1etik 22ra izango da eta izena ematea maiatza-

Iurretako Udalak diru laguntza emango du herriko kultur sorkuntza sustatzeko

IURRETA | Iurretan diru laguntza emango dute bertako ondare historiko eta kulturalagaz lotura duten eta garrantzi berezia duten proiektuak eta kultur sorkuntza sustatzeko asmoz. Diru laguntzarako partida 6.000 eurokoa da eta eskabideak maiatzaren 23ra arte aurkeztu daitezke.



Auto klasikoen topaketagaz hasiko dituzte Herriak antolaturiko jaiak Durangon

DURANGO | Herri Auzo Elkartek askotariko ekimenak antolatu ditu asteburuan jaiak ospatzeko. Apirilaren 30ean, esaterako, auto klasikoaren erakusketak hirugarren aldia beteko du. 11:30ean irtenda, 30 kilometroko ibilbidea egingo dute. Ondoren, Durangon elkartuko dira berriro, eta 13:30ean kotxerik onenak sarituko dituzte. Egundorretako beste osagai bat Old Berri Band taldearen kontzertua izango da. Maiatzaren 1ean ere hainbat ekintza izango da. Besteak beste, artisau azoka, Kriskitin Dantza Taldearen saioa eta P.T. musika taldearen kontzertua.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DIBA
KOOPERATIBA

Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Igurumen gehigarria 2022

Euskadiko nekazaritza ekologikoak goranzko joerari eutsi zion iaz eta 60 lagunek baino gehiagok bat egin zuten konbertsio ekologikoagaz

Gipuzkoako nekazari ekologiko berriak izan du hazkunderik handiena, %12ko igoeragaz; Bizkaian %2 igo da

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA • J.D.

Urterik urtera, Euskadiko nekazaritza ekologikoak goranzko joerari eusten dio, eta, pandemia eta guzti ere, 2021ean erregistraturiko datuek bide ona erakusten dute. Egoitza Zornotzan duen Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) argitara emandako datuen arabera, 2021ean 60 lagunek baino gehiagok bat egin zuten konbertsio ekologikoagaz. Guztira, gaur egun 710 eragile dabilta nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoa lantzen.

Goranzko joera hori ez da nobedadea Xabier Lejarzegi ENEE-Keko zuzendariaren esanetan. "Iazko igoera ez dugu sorpresa modura hartu. Azken hamar edo hamabi urteetan errolda gorantza doa. Baja batzuk ere egoten dira, baina urteroko balantze orokorra goranzkoa da. 2009tik 2016ra arte, igoera esponentziala izan zen, %10etik gora hazten ginen urtero. Ordutik aurrera, erritmoa geldotu egin zen apur bat, baina, hala ere, joera goranzkoa da. Geroago eta baserritar edo elaborazio enpresa gehiago hurbiltzen da ekoizpen ekologikora, eta balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du.

Hazkunderik handiena, Gipuzkoan

Datuak herrialdeka banatuta, Gipuzkoako nekazari ekologiko berriak izan du hazkunderik handiena, %12 gehiago baitira parametro ekologikoetan ekoiz-



Beste 975 hektarea erabiliko dira abeltzaintzarako. ENEEK

ten duten pertsonak: 283 guztira. Bizkaian igoera txikiagoa izan da (%2), eta 218an finkatu da. Araban 209 proiektu egin dira modu eko-

logikoan. Datuak metro karratuetara ekarrita, 7.905 hektarea erabiltzen dira modu ekologikoan, 2020an baino 1.200 gehiago.

Hazkunderik handiena Gipuzkoan izatea ere ez da ezohiko datua, Lejarzegiren esanetan: "Gipuzkoan beti egon dira baserritar gehiago ar-

lo ekologikoan lanean. Betidaniko tendentzia da. Bizkaian instalazio handiagoak egon izan dira, negutegi eta inbertsio handiagoeekin, eta, kasu horietan, beste ekoizpen modu batzuetara jotzen da sarritan". Alta asko ortugintzan izaten ei dira. "Abeltzaintzan gatzagoa da, lurra eduki behar direlako. Ortugintzan, ostera, errazagoa da ekoizle berriak lanean hastea, lursail txikiagoagaz ere modu profesionalean hasi daitekeelako", azaldu du.

Mahatsak eta haragiak, gora

Mahastizainen sektorea eta larre eta belardien ekoizpena nabarmen hazi dira ENEE-Keko datuen arabera. Abereen ekoizpena erabilitako azaleran izan den igoera esanguratsua da, aurreko urteagaz alderatuta %20ko igoera izan du eta. Beste 975 hektarea erabiliko dira abeltzaintzarako.

Mahatsondoaren hazkundera %16koa izan da aurreko urteagaz alderatuta, eta horrek erakusten du ardo ekologikoaren ekoizpenak etenbako goranzko joera duela. 150 hektarea berri baino gehiago gehitu dira sektorera.

Fruta ekoizpenak %7ko hazkundera izan du. Araban eta Bizkaian hektarea gutxiago dauden arren fruta-arboletarako, Gipuzkoako lurraldeak %15eko igoera finkatu du, eta dagoeneko 296 hektarea ditu ziurtatuta.

Baratze-ekoizpena zenbaki egonkorretan mantendu da azken ekoizpen kanpainan. 182 hektarea barazkiak ekoizteko dira, 2020an baino bat gutxiago. Araban igoera txiki bat egon da, eta Gipuzkoan jaitsiera txiki bat.

Eraldaketa jardueri dagokienez, gaur egun 238 operadore ekologiko daude, 2020an baino 13 gehiago. 186 ekoizpen barazki-eraldaketa dira, eta 52 animalia jatorrikoak. Gorakadak kontserben, ogiaren eta esnekien elaborazioan izan dira.

Produktu ekologikoen etiketa irakurtzeko ikastaroa

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Durangoko Berdeago azokan parte hartuko du. Nature atalean, kontsumo arduratsua bultzatzeko ekimenak antolatuko dituzte aste bi barru. Testuinguru horretan, Euskal Herrian ekoizpen ekologikoaren alde lanean dabiltzanek erakusleioa izango dute. Hain zuzen ere, produktu ekologikoen etiketak aztertzen irakasteko tailerra egingo dute.

Maiatzaren 14an eta 15ean, 11:30ean eta 18:00etan, ordu erdiko tailerrak emango dituzte

Zelan jakin produktu bat ekologikoa den? Produktuaren arabera zelan bereiztu daitezke osagaiak? Lehengaiak hemengoak dira? Galdera horiei erantzungo diete. Ordu erdiko tailerrak izango dira, maiatzaren 14an eta 15ean, 11:30ean eta 18:00etan.



Euskal Herriko produktu ekologikoen erakusmahaia.

Iurreta Lanbide Heziketak ikasleek auto elektrikoa erakutsiko dute Berdeago azokan

2021ean Bilbon antolaturiko Euskelec txapelketan, lehenengo postua eskuratu zuten auto horregaz



2021ean Bilbon egindako Euskelec txapelketa.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako Lanbide Heziketak postua ipiniko du Berdeago azokan. Iaz sortu zuten auto elektrikoa ikusgai ipiniko dute ikasleek. Ibilgailu horregaz, iazko ekainean Bilboko Itsas Museoan egindako Euskelec auto elektrikoaren txapelketan parte hartu zuten Iurreta Lanbide Heziketak, eta Euskadikoaren artean lehenengo postua lortu zuten. 19 ikastetxek parte hartu zuten Nerbioi itsasadararen ondoan prestatuturiko zirkuituan.

Laugarren edizioiko Euskelec 2021 txapelketa zenbait fasetan lehiatu zuten. Iker Mujika Akerra pilotuak Ielectric taldeko ikasleak gidatu zuen autoa. Ikasturtean zehar ikasleek irakasleekin batera egindako talde lanaren emaitzak fruitua emateaz gainera, erakusketak ikusgarria eskaini zuten auto bakoitzaren diseinu berezia erakutsita. Ikasleek boluntario talde honetan parte hartzeko aukera izaten dute urtero.

Precius Plastic


Bestalde, plastikozko botilak birziklatzeko makina ere ikusgai ipiniko dute. Ikasturte honetako auto elektrikoaren zati bat birziklatuturiko material horregaz egin gura dutela aurreratu dute ikastetxeko arduradunek Precius Plastic proiektuaren barruan.

% 100 URA GARA

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciod eaguas.eus



Gastronomiaz gozatzeko txokoa eskainiko dute, lehenengoz, jasangarritasunaren aldeko Berdeago Azokan

Tokiko janari eta edari ekologiko, organiko eta biologikoak dastatzeko aukera egongo da Berdeago Nature atalean, maiatzaren 14an eta 15ean



Jasangarritasunerako Europako Elkartekoek aurreko edizioetan egindako eskaintza osatu gura izan dute Gastroguneagaz.

ekologikoak probatzekoa. Horrez gainera, kontsumo arduratsua lerroburu hartuta, showcooking saioak eskainiko dituzte. *Sukaldaritza osasungarria, sukaldaritza adimendua* lelopean, momentuan koinatzen ikusteko aukera egongo da, maiatzaren 14an eta 15ean. Saio biak 12:30ean hasiko dira. Egun bi horietan, 14:00etan, Durangoko Rugby Tabernak zuzenduta, zero kilometroko produktuekin showcooking-a egingo dute; eta 17:00etan, La Salveren eskutik, zero kilometroko garagardo dastatzea egingo dute. Maiatzaren 15ean, Patxikoop enpresak ardo ekologikoen dastatzea ere egingo du, 19:00etan.

Berdeago Natureko produktuek sukaldaritzan duten erabilera erakusteko era da Gastrogunea

Aipatu behar da Delikatetxek eta Izarbidek ere parte hartuko dutela Berdeago Azokan. Delikatetxeren eskutik, jardunaldia egongo da hilaren 15ean, 14:00etan, *Lehendik* dauden kalitate goreneko produktuek aprobetxatzea eta zure mahaira eramatea ekonomia zirkularraren eta autokontsumo energetikoaren bitartez izenburupean. Era berean, Izarbidek *Eredu* berritzailea merkataritza ekologikoan hartuko du berba, 12:00etan. Berdeago Nature barruan, produktu ekologikoen etiketaren irakurketa tailerrak ere antolatu dituzte. Saioak 11:30ean eta 18:00etan izango dira.

Gastroguneak harrera ona izatea itxaroten du Sanchezek: "Jateko zerbitzua eskainiko dugulako, jasangarritasunerako azokagaz bat datorren zerbitzua. Berdeago Naturen erakutsiko diren produktuek sukaldaritzan duten erabilera erakusteko modua da Gastrogunea".



Showcooking saioak eta dastatzeak antolatu dituzte Gastrogunerako.

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Berdeago Azokak gastronomiaz gozatzeko txokoa hartuko du aurten, lehenengoz. Jasangarritasunaren aldeko azokaren bederatzigarren edizio honetan, Jasangarritasunerako Europako Elkarteko kideek orain arteko eskaintza osatzea izan dute helburu. Gainera, Xabier Sanchezek Gastroguneako arduranak azaldu duenez, Durangaldeko enpresa eta ostalariei aukera eman gura izan diete, Berdeago Azokak herrian "eragin zuzena" izan dezan. Hartara, Landako Guñera doazen bisitariek aukera izango dute tokiko janari eta edari ekologiko, biologiko eta organikoak ezaugu eta dastatzeko, Gastrogunean. Berdeago Nature atalean izango

du lekua Gastroguneak, kontsumo arduratsuen azokan, maiatzaren 14an eta 15ean.

Durangoko Rugby Tabernak zero kilometroko produktuekin egindako showcooking-ak eskainiko ditu

Durangoko Rugby Tabernak eta Saltsan Katerin enpresak kudeatuko dute Gastrogunea, eta Cafes Baquek ere parte hartuko du. Azokara bertaratutakoek Saltsanek prestatutako pintxoak eta jatekoa kontsumitzeko aukera izango dute, eta Rugby tabernaren eskutik garagardo eta ardo

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa

EROSKI, 2050erako karbonoan neutroa izateko konprometitua

Pandemiak agerian jarri du naturaren gora-beherek nolako garrantzia izan dezaketen gizartearen ongizatean, baina era berean erakutsi du posible dela lankidetzan jardunda haren eraginei buelta ematea. Iaz, EROSKI ahaleginak handitu zituen iraunkortasunaren arloan, eta mugarri garrantzitsuenetako bat izan du berotegi efektuko gasik ez emititzera iristea 2050ean.

Erronka hori markatuta dator Europako Bata-sunaren Elikagai-negozio eta marketin-praktika arduratsuei buruzko jokabide kodean. Lan esparru handinahitsua da, elikagai negozio iraunkorraren ingurukoa, eta zazpi helburu handi markatuta ditu: dieta osasungarri, orekatsu eta iraunkorrak sustatzea; alferrik galtzen diren

elikagaiak prebenitzea eta gutxitzea; berotegi efektuko gasak gutxitzea eta European elikagai katea klimatikoki neutroa izatea; elikagai katea ekonomia zirkularrerantz bihurtzea eta baliabideen erabilera efizientea egitea; ekonomia hazkunde sostengatua, inklusiboa eta iraunkorra izatea; balio kate osoan parte hartzen dutenek lan duina izatea; eta balio iraunkorrak sorraraztea elkarlaren eta lankidetzaren bitartez.

EROSKIk %39 pasa gutxitu du bere karbono aztarna 2017tik hona; horrek esan nahi du 145.116 tona CO2 baliokide saihestu dituela, hau da, gutxi gorabehera Espainian 120.000 auto berrik 10.000 km egitean igortzen dutena.

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko; alde horretatik, ekimen askotari-

koak landu ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. EROSKIk animalia ongizatearen zigilua atera du, eta EAEko eta Nafarroako esnea ontzi iraunkorragoarekin; lehendik bazuen Galiziako eta Balearretako esneetan ere.

Horretaz gainera, urte amaieran, EROSKIk energia aldetik bere sare komertzial guztiko supermerkatuak iraunkorrena dena atera zuen, Lakuan, Gasteizen. Proiektu berritzailea, batik bat hiru lan eremu izan dituena: azpiegitura, prozesuak eta baliabideak.

Lanaren emaitza lehengo urte amaieran jaso zuen EROSKIk, Lean&Greenen lehenengo izarra eskuratu baitzuen bost urtean CO2 emisioak %20 jaisteko helburua erdietsita bai logistika prozesuetan eta bai garraioan.



Iaz EROSKIk Gasteizen bere supermerkatuak iraunkorrena ireki zuen.

berdeago

Landako Gunea, Durango
www.berdeago.com



05/5-6-7-8
energy

Eraginkortasun energetiko eta
ingurumen berrikuntzaren azoka
Maiatzaren 5, 6, 7 eta 8



05/14-15
nature

Kontsumo
arduratsuaren azoka
Maiatzaren 14 eta 15

sustatzailak



babesleak



BERDEAGO AZOKA 2022

Berdeago Azoka bueltan da!

2013an lehenengo edizioa egin zenetik, erakusketari eta bisitari asko joan dira urtero iraunkortasunarekin duten hitzordura Durangoko Landa-ko Gunean, modalitate bikoitzean: Berdeago Energy eta Berdeago Nature.

Aurten, Berdeago Energy Azokaren ildoan maiatzaren 5ean, 6an, 7an eta 8an izango da, besteak beste, ingurumen-berrikuntza, ekonomia zirkularra, energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria, eraikuntza eta birgaitze jasangarria bezalako sektoreei eskainia. Berri gisa, lehenengo egunean, maiatzaren 5ean, ostegunean, 9:30etik 18:00etara, Eko-berrikuntzako Ekintzailtzari buruzko jardunaldi espezifiko bat egingo da. Bertan, erakusketak eta mahai-inguruak egingo dira, erakunde publikoen eta enpresa pribatuen partaidetzarekin.

Berdeago Energy da lehen aipatutako sektoreetako profesionalek beren produktuak, soluzioak eta sistemak erakusten dituzten urteroko



hitzordua. Hirurogei enpresa, ikastetxe, elkarte, kluster eta ikastetxe ofizialek parte hartuko dute azokan.

Aldi berean, azokaren egitaraua osatuko duten erakusleek aurkezpenak, erakustaldiak, tailerrak eta bestelako jarduerak egingo dituzte.

Maiatzaren 14an eta 15ean Berdeago Natureren txanda izango da. Bertan kontsumo arduratsua jorratzen da bere jarduera-eremu guztietan: elikadura ekologikoa eta Km0, artisautea, moda jasangarria, produktu naturalak, ekonomia soziala edota turismo jasangarria.

Aurten, hainbat toki-erakunderekin batera lan egingo dugu. Dendak Baik III. Moda iraunkorreko desfilea antolatuko du eta Durangoko Errugbi Taldea izango da Gastro Gunearen arduradun, bertako produktu ekologiko eta hurbilekoak eskainiz.

Horrez gain, jarduera-programa zabalago izango dugu, besteak beste, dastatzeak, showcooking-ak, tailerrak eta dibulgazio-hitzaldiak.

Durangoko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzak, Iho-bek, Energiaren Euskal Erakundeak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, BBK-k eta Eroskik babesten dute Berdeago.

Jasangarritasuna eskura duzu. Bisita ezazu Berdeago Azoka 2022.



Oilo salda, hanburesak, tipulada, eta ozpinetan botilaraturiko porru finak dira Delikatetxeko produktu izarrak

Edurne Garciak, Alazne Jayok eta Xabier Gorrotxategik sorturiko kooperatiba da Delikatetxe. Berdeago azokan izango dira euren produktuekin

KMO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken urteotan su baxuan egosten egon eta gero, dagoeneko ikusi du argia Delikatetxek. Alazne Jayok, Edurne Garciak eta Xabier Gorrotxategik azken urteak proiektua lantzen eman ondoren, irailean ikusi zuen argia Elorrión zabaldu duten kooperatibak. Euskaberreko Etxaldeetako oiloei irteera ematea da Delikatetxeren helburua. Kooperatiba honi eskerrak, ekoizleek konponbidea ematen diote arazo bati. "Ekoizleek oilo zaharrak kentzeko duten arazoaren berri izan genuen. Horregaz zeozer egin genezakeela pentsatu eta proiektuari ekitea erabaki genuen", azaldu du Xabier Gorrotxategik.

Euskaberreko Etxaldeetako oiloekin zero kilometroko hainbat produktu egiten dute Delikatetxeko kideek. Alde batetik, salda egiten dute. Salda egiteko, oilo freskoa, porrua, tipula, azenarioa, apioa eta gatza erabiltzen dituzte. "Su motelean egosten dugu, eta, behin egosita, salda hori pausatzen uzten dugu. Horrela, koipe guztia goiko



Ezkerretik hasita, Edurne Garcia, Alazne Jayo eta Xabier Gorrotxategi.

aldean geratzen da eta guk azpiko aldetik hartzen dugu salda", jarraitu du Gorrotxategik.

Hala ere, salda ez da Delikatetxek egiten duen produktu bakarra. Oilo paparragaz, azenarioagaz, porruagaz eta Idiazabal

gaztagaz hanburesak egiten dituzte. Horrez gainera, salda egiteko erabilitako tipulekin tipulada egiten dute, hau da, tipula konfita. "Saldan egosi den tipula hartu, beste lapiko batean sartu, eta tipula konfita egiten dugu", esan du

Gorrotxategik. Hori gutxi balitz, porruak bitan zatitzen dituzte eta porruaren alde zuria ozpinetan botilaratzen dute. Gero, merkaturatu egiten dute.

Orain, beste produktu bat merkaturatu guran ere badabiltza

Delikatetxeko kideak. Saldarako erabilitako oilo eta barazkiak aprobetxatuta, txakurrentzako jaki naturalak egiten hasi dira. "Laster merkaturatu izatea espero dugu", gaineratu du Gorrotxategik.

**EUSKADIKO
ITUN
BERDEA**

Aurrera goaz zure energiarekin

Euskadin aurrera goaz energia trantsizioan, eguzkiaren, itsasoaren eta haizearen laguntzaz. Eta, jakina, zure laguntzarekin.




**ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA**
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Ostalaritza gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Durango**




AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**




ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

**Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartza goitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro
alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera haundia giro
ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak,
rabak, errazioak eta askotariko tortilak
enkarguz,...

**Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.





'Saria'

ANTZERKIA ELORRIO :: Apirilak 29

Quintana Teatro konpainiak 'Saria' obra aurkeztuko du

Etorkizun hurbil batean girotu-
riko obra garratza aurkeztuko
du A Coruña (Galizia) Quin-
tana Teatro konpainiak, gaur,
Arriola antzokian. 'Saria' obrak
etorkizun hurbil horretan bizi
diren pertsonen bizi behar duten
egoera islatzen du. Aurrerapen
teknologikoen garrantzia hain
da handia, eta arrakasta ekono-
miko, sentimentala eta soziala
lortzeko egin behar den borroka
hain latza, 'Saria' lortzea baita
zoriona lortzeko bide bakarra,

konpainiak sinopsian azalduta-
koaren arabera.

Zuzenean eskainitako 'rea-
lity' bat da eta publikoak erabaki
beharko du, bere botoagaz, nork
merezi duen saria irabaztea: os-
pea lortuta hiltzea, dena amets
batengaitik, azaldu dutenez. Vic-
toria Teijeiro, Raquel Espada eta
Xurxo Cortázar igoko dira oholtza
gainera, Marian Bañobrereren zu-
zendaritzapean. Arriola antzo-
kian taularatuko dute obra, gaur,
20:00etan.

Apirilaren 29an

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Haurrentzako entzierroa,
17:15ean, Traña plazan.
Txupinazoa txosnen gunean
Abadiño Sokatira taldearen
eskutik, 19:30ean. Ondoren,
parrillada.
Marabao y Tú (Platero
y Tú tributoa) + **Pedrá**
(Extremoduro tributoa)+ **Kaos**
Etiliko, 22:00etan, Traña
plazan.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Ama' (Marie de Jongh),
20:00etan, Zelaieta Zentroan.

ZORNOTZA **musika**
Dientes de Luna, 20:30ean,
Zelaieta Zentroan.

Apirilaren 30ean

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Kickboxing opena,
10:00etan, Traña-Matienako
kiroldegian.
Herri bazkaria, 14:30ean,
Traña plazan. Gero, koadrillen
arteko jolasak.
Mozorro kalejira Sugarri
fanfarreak alaituta,
19:00etan, Trañabarren
kalean.
Lua Madi, 20:00etan, Traña
plazan.
Ikuskizun piro-musikala,
22:15, Tren geltokiaren
alboan.
Akerbeltz, 23:00etan, Traña
plazan.
Dj Danny Meip, Dj Crstian

Piornedo, Dj Dani Borge
eta Dj Andoni Pacheco,
23:00etan, Trañabarren
etorbidean.

DURANGO **aurkezpena**
'Eztandak dardara zaitzala',
Sorgiñola gaztetxean.
Harrera eta Durangaldeko
Mugimendu Feministaren
mugarriak marraztu!,
17:00etan.
'Bizitzak erdigunean
jartzea, burujabetza kontua
da dinamika', 18:00etan.
Topagune feministaren
aurkezpena, 19:30ean.

DURANGO **maiatzeko jaiak**
Ibilgailu klasikoan 3.
kontzentrazioa, 10:30ean,
Herria elkartearen inguruan.
Wiston Coopeland magoa,
17:00etan.
Kalejira musikatua
18:00etan.
Old Berri Band, 20:00etan.

IURRETA **bertsoak**
Durangaldea Uztabarritzen
zirkuitua, 18:30ean, Aita San
Migel plazan. Miren Amurizak,
Odei Barrosok, Txaber Altubek
eta Aitor Estebanek egingo
dute bertsotan. Gai jartzailea:
Maite Berriozabal.

Maiatzaren 1ean

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Geu Bek Eusko Labeleko
txahal bat erreko du,
goizean, Traña plazan.
Artisautza azoka, 10:00etan,
eskolako aterpean.

Herri kirolak, 12:00etan,
Traña plazan.
San prudentzio pilota
txapelketako finala,
17:00etan.
Magia ikuskizuna (Imanol
Ituiño), 17:00etan, Traña
plazan.
DURANGO **musika**
Doinuzahar Ganbera
Abesbatza, 19:30ean, San
Frantzisko elizan.

DURANGO **maiatzeko jaiak**
Kalejira eta txapligoak,
10:00etan, Herria elkartearen
inguruan.
Artisau azoka, 10:30ean.
Umeentzako bizikleta
buelta, 11:00etan.
Kriskitin dantza taldea,
12:30etan.
Tute txapelketa, 16:30ean.
Umeentzako herri kirolak
eta egurrezko jostailuak,
17:00etan, Otamotz parkean.
P.T. musika taldea,
18:00etan.
Igel txapelketa, 19:00etan.

Maiatzaren 4an

DURANGO **berbaldia**
'Errefuxiatuen krisia
Europar. LGTBI taldeak
testuinguru horretan'
(Hizlaria: Aldarte elkartea),
16:00etan, San Agustin
kulturguneko sarreran.

Maiatzaren 5ean

ZALDIBAR **dantza bertikala**
Dantza ikuskizuna Dimegaz
elkartearen 'Harria Herria'
film laburrean oinarrituta,
20:30ean, Olazar pilotalekuan.

Maiatzaren 6an

ABADIÑO **sanprudentzioak**
Txiki merienda, 16:45ean,
Merkatu plazan.
Dj Kaktus, 17:15ean.
Gozategi+State
Alerta+Estutu, 21:30ean,
Traña plazan.
Bertso saioa: Igor Elortza,
Jone Uria, Amets Arzallus eta
Txaber Altube, 22:00etan,
Errota kultur etxean. Gai
jartzailea: Igor Galarza.

IURRETA **ikuskizuna**
'Hondartzan perretxikotan'
(Txintxeta klipa eta
Txorroskilo pailazoak),
17:00etan, kultur etxean.

ELORRIO **dantza**
'Bailar Agora' (Marta
Alonso Tejada), 20:00etan,
Arriola antzokian.

ZORNOTZA **dantza**
'Ausarta' (Loturak),
20:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 3tik 8ra arte

DURANGO **erakusketa**
'Orgullo de valientes', San
Agustin kulturguneko sarreran.

Maiatzaren 6ra arte

BERRIZ **erakusketa**
'Dronegrafiak: begirada
hegalaria' (Santiago
Yanizen argazkiak), Kultur
Etxean.

Zinema

:: **Berriz**
KLTUR ETXEA

• **Sonic**
barikua 29: 17:00
domeka 1: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **Downton Abbey:**
Una nueva era
barikua 29: 19:30
zapateria 30: 17:00 /19:00
domeka 1: 17:00 /19:00
astelehena 2: 18:00/20:15
martitzena 3: 19:30
eguzatena 4: 19:00

• **Alcarràs**
barikua 29: 19:30
zapateria 30: 19:30
domeka 1: 19:30
astelehena 2: 18:00/20:15
martitzena 3: 19:30
eguzatena 4: 19:00

• **X**
barikua 29: 19:30
zapateria 30: 18:00/20:00
domeka 1: 18:00/20:00
astelehena 2: 18:00/20:15
martitzena 3: 19:30

• **Go Fish: salvemos el mar**
zapateria 30: 17:00
domeka 1: 17:00

• **Andrea Chenier**
eguzatena 4: 19:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Coda**
zapateria 30: 20:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00


• **Stardog & Turbocat**
domeka 1: 17:00

:: **Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **La peor persona del**
mundo
zapateria 30: 20:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15

• **Crónica de la guerra**
carlista
martitzena 3: 20:15

• **Los tipos malos**
zapateria 30: 17:00
domeka 1: 17:00





Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*



“Ilusio handia egingo lidake liburua Durangoko Azokan aurkezteak”

Imanol Agirre durangarrak bere lehenengo liburua kaleratu du: 'Akresale'; poesia eta mikroipuinak batu ditu bertan

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Marinelik onenak barrualdekoak dira esaten da. Imanol Agirreren kasuan ere, horrela izan zitekeen. Izan ere, durangarrari txikitatik datorkio itsasoagazko zaletasuna. Aitagaz arrantzan lehenengo, urpekaritzan murgilduta gero, egun, biologoa da ofizioz Agirre, eta doktoretza amaitzen ere badabil. Itsasoa ardatz duen 'Akresale' liburua publikatu du oraintsu, poemak eta mikroipuinak batzen dituen bere lehenengo liburua. Durangoko Hitz eta Urriko liburu-dendetan dago eskuragarri. Bestela, zuzenean berari idazteko eskatu du Imanolek.

Nondik datorkizu itsasoagazko lotura hori?

Biologoa naiz lanbidez, eta orain doktoretzaren azken urtean nago. Orain urte asko, aitagaz arrantzan egitera joaten nintzen. Itsasoaren mugimenduak eta mareak ulertzen ikasi nuen, izakiei begiratzeko... Apurka, ezkutuan zegoen mundu bat deskubritzen hasi nintzen; gerora, urpekaritza-arrantza egiten hasi nintzen, eta hor oso lotura indartsua sortu nuen itsasoagaz.

Eta idazteko zaletasuna?

Hori amarengandik dator. Berari ere asko gustatzen zaio irakurtzea, eta hori irakatsi zidan. Batxilerga garaian, prosa idazten hasi nintzen, baina intentzio handirik barik. Gero, aldaketa pertsonal batzuen ondorioz, esan gura nuen idatziz esan nezakeela deskubritu nuen; adierazteko modu bat zen niretzat. Esango nuke gizo-

nok emozionalki gehiago zabaldu behar garela; orain, pandemia-gaz, gehiago egiten dela iruditzen zait, baina, esan dudana moduan, emozionalki ez gara hainbeste itxi behar, neure ustetan. Hortaz, 2019 inguruan sare sozial batean kontu bat zabaldu nuen, idazten nituenak Fastink ezizenagaz publikatzeko. Testu txikiak ziren, ez oso landuak. Hasieran duda asko

**Epe luzera begira,
nobela beltz bat idaztea
gustatuko litzaidake;
orain nahikoa dut hau
aurkezteagaz**

nituen, ea idatzitakoa publikatu, nola publikatu eta hori guzti hori, baina uste dut erabaki polita izan dela, eta baita lagungarria ere. Ez nuen ezer espero, baina horri eskerrak idatzi zidaten argitaletxetik. Eta, gerora, jendeak esan dit identifikatuta sentitu dela, azken finean, eguneroko egoerak dira eta.

Zer da 'Akresale'?

Asmatu dudana berba bat da, Ake-larrerren eta Kresalaren arteko fusioa. Esanahia bera baino haratago joan gura nuen, itsasoagaz hartu-eman duela, eta zeremonia kaotiko bat ere iradokitzen duela. Gerora, egoera asko azaltzeko berba komodin lez erabili dut.

Egoera biografikoak ditu liburuak, baina fikziotik ere badu, ezta?

Bai, denerik dago. Egoera batzuk guztiz

errealak dira, beste batzuk fikzioagaz nahastutakoak dira, eta badaude guztiz fikzioak direnak ere. Zerbait okurritu ahala, idazten hasten naiz, eta gero erabakitzen dut poesia forma eman edo mikroipuinarena. Idatzitako batzuk 2019koak dira, beste batzuk berriagoak; badaude zaharragoak ere, moldatu ditudanak. Gaur egun, literatura ere modu azkarrean kontsumitzen da, eta horregatik idatzi dut horrela. Aurrerago, epe luzera begira, nobela beltz bat idaztea gustatuko litzaidake. Baina gaur egun hau aurkezten nabil. Orain gutxi Durangon egin zenuen aurkezpena. Zelakoa izan zen? Zelako harrera izan du liburuak inguruan?

Orokorrean oso pozik nago liburuak izandako harreragaz. Azken finean, proiektu guztiz pertsonala da, nik bakarrik sortu dudana, eta ikustea aurkezpen horretara

Durangoko Udaleko ordezkariak etorri direla, edota Bartzelonako, Donostiako, Bilboko eta Tolosako lagunak etorri direla, bultzada bat da. Horrez gainera, asteon Valentziako liburu azokan egongo naiz, liburua aurkezten -argitaletxea hangoa da-, eta laster Madrilera

**Zerbait okurritu ahala
idazten hasten naiz, eta
gero erabakitzen dut
poesia forma eman edo
mikroipuinarena**

ere joango naiz, beste azoka batera. Nire aldetik ere banabil lotzen aurkezpenak. Ilusio handia egingo

lidake, adibidez, Durangoko Azokan aurkezteak.

Zer gai jorrazten dituzu liburuan?

Liburua txikia da, baina trinkoa. Eduki asko du barruan, eta testu ingurua bera ere polita da. Itsasoa asko tratatzen da, zein polita den erakusten da, baina zer kendu didan eta zein beldur sortzen dizkidan ere erakutsi dut. Iruditzen zait literaturan idealizaturik egon daitekeela itsasoa, eta errespetua eduki behar zaiola uste dut. Bestela, denerik dago gaiei dagokienez: abentura, heriotza, maitasuna, desamodioa... sukaldaritza ere agertzen da, arrantzagaz lotuta.

Non erosi daiteke liburuak?

Durangoko Hitz eta Urriko liburu-dendetan dago. Bestela, nigaz hartu-emanetan ipinita.



Imanol
Agirre Sarabia
Biologoa
DURANGO | 1994

clínicadentalhortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arandoñok emanaldi sorta antolatu du 25 urteko jarduna ospatzeko

Arandoñok bederatzi emanaldiko zikloa antolatu du; lehenengoa domekan izango da



Valentin Atxotegi Doinu-zaharreko kidea eta Xabier Arana Arandoñoko kidea.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Arandoño kultur elkarteak emanaldi sorta antolatu du mende laurdeneko jarduna ospatzeko. Saso honetan antolatu ohi dituzten emanaldiez gainera, ekitaldi berezi batzuk antolatu dituzte urteurrenerako. Izan ere, Arandoñok ez ezik, Durangoko beste hainbat elkarte ere urteurren borobilak beteko dituzte aurten: Doinu-zahar koruak 40 urte bete ditu aurten, eta Durangoko kontserbatorioak beste horrenbeste beteko ditu. “Urteroko kontzertuez gainera, el-

karlanean beste emanaldi batzuk antolatu ditugu, ospakizunetan egongo garen elkarteek elkarrengaz ospatzeko”, azaldu du Xabier Arana Arandoñoko kidea.

Hasieran, bederatzi emanaldi egingo dituzte urteurrena ospatzeko. Hala ere, Aranak gehiago antolatzeke borondatea duela azaldu du, “aurrekontuaren arabera, betiere”. Bogoroditsiegaz, Herri Maite akordeoi taldeagaz, Durangoko Orfeoia gaz eta Silboberri txistu elkarteagaz ere egingo dituzte emanaldiak.

Lehenen, Doinu-zaharregaz
Lehenengo emanaldia domeka honetan izango da, maiatzak 1, San Frantzisko elizan. Bertan, Ana B. Garciak joko du organoa, eta Doinu-zaharreko koruak ere parte hartuko du emanaldian. “San Frantziskon abesten gure etxean lez gaude, izan ere, makina bat bider egon gara bertan”, azaldu du Valentin Atxotegi kidea. Emanaldiak parte bi edukiko ditu. Lehenengoan organoagaz abestuko dute, eta bigarrean ahots hutsez.

'Olatu arteko txalupa arraroa' aurkeztuko dute Iurretan

Maiatzaren 11n izango da emanaldia, bibliotekan

LITERATURA • A. M.

Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren berbak eta Ines Osinaga soinu-jole arrasatearren musika uztartzen dituen 'Olatu arteko txalupa arraroa'. Soinuak eta berbak ikuskizuna aurkeztuko dute Iurretan. Funtsean, Sarrionandiak letren jatorria eta zergaitia azaltzen du emankizunean zehar, Osinagak musika ipintzen dion bitartean. Orain hamarkada

bat inguru, Gosariak izeneko proiektuan ere elkarrengaz lan egin zuten Osinagak (Goseko taldekide lez) eta Sarrionandiak, Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artistekin batera. Maiatzaren 11n izango da, eguaztena, 19:30ean. Sarre-rak maiatzaren 2tik aurrera egongo dira eskuragai Iurretan erroldatuentzat; Iurretatik kanpora erroldatuek 4tik aurrera eskatu beharko dute sarrera.

Ametsak izango da Hitzez eta Ahotsez berriaren gaia

Ekainaren 10ean egingo dute irakurraldia

LITERATURA • A. M.

Hitzez eta Ahotsez ekimenaren edizio berri bat egingo dutela iragarri dute aurten. Hiru ekitaldi antolatu dituzte, eta gaia Ametsak izango da. Maiatzaren 13an Leire Bilbaoren poesia emanaldia egongo da Bizenta Mogel bibliotekan; hilaren 28an, Joseba Sarrionandiak berbaldea eskainiko du Arte eta Historia museoan; bestalde, ekainaren 10ean irakurraldi giro-tua izango da, Benita Uribarrena parkean.



Imanol Larrinaga.

Gai librean

Arauek eta gomendioak
Idazteko gaia aukeratuta, gogora datorkit pediatria haren gomendioa: “zure poltsikoak ahal badu, marka honetako pixoihalak onenak zure umearentzat”. Langile publiko batengandik entzuniko lotsagaberiarik haundienetakoa. Koka ezazue burua une batez autoritatea ematen dizuen lanpostu batean eta diru-etekina edo onura ekarriko dizuen “gomendioa” egiten/ematen/luzatzen. Larrua behar da, ezta? Gogoan ditut baita euskara irakasle garaiek ere. Haiek ziren haiek gure ahaleginak ikasleek Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak desberdin zituzten, funtsezkoa baitzen zuzentzeko irizpideak jartzean, azterketak zuzentzean edota, ikaslearen erabakitze/aukeratzeko gaitasunaren mugak ezartzean.

Aholku-emailea botere leku batean dago jasotzailearekiko. Hala ere,

aholkuak iritzi subjektiboak dira, inoren jokabidea alde baterantz edo beste baterantz bideratzeko asmotan emanikoak.



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Kapazak zarete gurasoekin bizi zinetela, haiek hezitzen zintuzten saso hartan, etxean bete beharrekoak arau ala gomendioak ziren bereizteko? Zalantzak jartzen zenituzten ala zeuen onerako zirela pentsatzen zenuten, bete ala ez? Ez ditugu hain erraz bereizten menpeko garenean.

Oinak lurren baten gainean behar ditugunez, zerbait sinestu behar dugu eta prest gaude sinesteko orain arteko osasuna babesteko arauak adituen txosten edo irizpideetan oinarrituak zirela. Orain, ordea, beste garai bat hasi da: aholku-emaileen garaia. Bitxikeria bat: aholku-emaileen ezaugarri da ez formaziorik ez kontzientziarik ez izatea. Adituen txostenik ez dute behar hauek eta euren eskumenen mugen kontzientziarik ez dute.

Totalitarismoa segurtasunaren izenean. Ustekoarenean.

Mesedez, ez niri aholkurik eman. Ez gomendiorik. Nire erantzukizun pertsonala aipatuz, gutxiago. Agintaritik aholkulari espiritualera bihurtzeko baimena geuk eman diegu, irudi hori islatu dugu eurengan eta nortasun horretaz euren burua jantzi dute. Edozein agintari, orain, kudeatzen duen eraikin publiko baten erabilerarako gomendioak ematera ausartzen da. Autoritatea edukitzearen sentsazioa dute, une batez jakintsu dira, prestigio ikututxoa ere bai, ezta? Luzatu lepoa eta atera hadi kalera, agintari osasun zaindარი! Umeak edo ardurabakoak bagina bezala artatu gaitzazue lasai asko: gutaz kezkatzen zaretela pentsatuko dugu.

Prest ote daude eurek gure aholkuak entzuteko? Komisionista etiko hauek zergatik ez gaituzte besteek beste haserrearazten? Baduzu inguruan horrelakorik? Ego-a handitu zaio azkenaldian?

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

“Buruan buelta asko eman diot txapelketari; gogotsu nago parte hartzeko”

Hiru urteko etenaren ondoren, bueltan da Ironmanen munduko txapelketa eta bertan arituko da Gurutze Frades

IRONMANA • JOSEBA DERTEANO

Gurutze Fradesek Ironmanen munduko txapelketan parte hartuko du maiatzaren 7an, bere ibilbidean bosgarrenez. 2021eko txapelketa da, COVIDaren ondorioz, aurreko arte atzeratu behar izan dutena. 2022koa urrian izango da eta han ere arituko da triatleta iurretarra. Baina lehenengo lehenengokoa. Martitzenetik, AEBetako Utah estatuko ST George herrian dago, hantxe lehiatuko delako txapelketa eta ez Konan (Hawaii) ohikoa den moduan. Hamabi egun ditu hango klimatologiara eta ibilbidera egiteko.

Hawaiin barik Utah-n da oraingoan txapelketa. Hango eguraldia, ibilbidea... hobeak ala txarragoak dira zure dohainetarako?

Ez da erraza esatea. Hitzordu desberdina izango da, egokitzen egunetatik bertatik hasita. Parte hartzaile bakoitzak bere ezaugarriak eta dohainak dituenez, zelan moldatuko garen jakiteko gogo horregaz gaude denok. Hasteko, igeriketa saioa neoprenoagaz egingo dugu. Hawaiikoa neoprenorik barik izaten da. Aldez aurretik, horrek mesede egingo dit. Bizikletan, igoera bi daude amaiera aldera, eta korrikako tarteak ere badu desnibela. Eguraldiari dagokionez, tenperatura altuak edukiko ei di-

tugu. Hori guzti hori kontuan hartuta, iraupen luzeagoko lasterketa izango da eta horrek ere mesede egin behar lidake. Aurpegia eman dezakedala uste dut, baina sekula ez da jakiten. Beharbada faktore horiek guztiek gero neuri eragingo didate gehien. Oso lasterketa gogorra izango da eta munduko onenak arituko dira.

Berez, txapelketa iazko urrian egitekoa zen. Data aldaketa buruhaustea izan da prestakuntzari dagokionez?

Bai. Kontuan hartu behar da 2019tik ez dela egin munduko txapelketa. Urte bi daramatzagu plangintza konplexu batez, helburuak aldatzen eta prestakuntza eta sasoi fisikoa horretara moldatzen. Horrek, besteak beste, handitu egiten du lesioen arriskua. Oso zentratuta ibili behar duzu. Behintzat lan horrek emaitza onak eman ditu. Iaz ez zen txapelketarik egin, baina sasoi hartan maila onean aritu nintzen eta Ironman bitan 2022ko txapelketarako sailkapena lortu nuen. Esango nuke oraingo prestaketa ordukoaren jarraipen moduko bat dela.

Prestaketa luzea itxaroten zenuen moduan joan da? Sasoi onean helduko zara txapelketara?

Bai, dena ondo joan da eta egunetik egunera kirolari hobe naizela uste dut. Sasoi onean nago erronkari aurre egiteko.



Zer helburu duzu?

Munduko txapelketa batean dudan posturik onena 15.a da. Nire

Urte bi daramatzagu plangintza konplexu batez, helburuak aldatzen eta prestakuntza horretara moldatzen

anbizioren handiena hamar onenen artean sailkatzea da. Helburu

anbiziotsua da eta badakit oso gaxa dena, emakumeetan maila ikaragarria egoten delako, baina ahaleginduko naiz.

2019an izan zen azkenengo munduko txapelketa. Parentesi hau luze egiten ari zaizu?

Buruan buelta asko eman diot munduko txapelketa honi. Ez dakit "luze" den berba, baina gogotsu nago parte hartzeko eta besteekin alderatuta non nagoen jakiteko.

Ironmanen munduko txapelketa bi lehiatu behar dituzu urte berean.

Posible da hitzordu biak ehuneko ehunean prestatzea ala aukeratu egin behar da?

Bai, prestatu daitezke. Lasterketa batzuetan partu hartu ez eta indarrak entrenamendura eta prestaketara bideratuta, asko pentsaturiko planifikazio zaindua aurrera eramanda. Azkenean, ez noa munduko txapelketetara antolatzaileek gonbidatu nautelako, lan handiaren ondoren sailkapena lortu dudalako baino. Biak ahalik eta ondoen lehiatu gura ditut eta horretarako nabil lanean.



Liga erregularrean Basket Navarrak irabazi ditu talde bien arteko partiduak.

Teknei Zornotzak igoera faseko final-laurdenak hasiko ditu bihar, Basket Navarra taldearen aurka

Joaneko neurketa Iruñean jokatu du, bihar; itzulerakoa maiatzaren 7an izango da, Zornotzako Larrea kiroldegian

SASKIBALOIA • J.D.

Zornotza Saskibaloi Taldea Zilarrezko Ligako igoera fasean murgilduta dago. Lehenengo koska gaindituta, final-laurdenei ekingo die asteburu honetan. Basket Navarra taldea du aurkari. Joaneko partidua Iruñean jokatu du, zapatu honetan. Itzulerakoa maiatzaren 7an izango da, Larrea kiroldegian. Liga erregularreko sailkapenari begiratuta, Teknei Zornotza da

favoritua aurrera egiteko. Nafarrak hiru postu behetik geratu ziren. Baina sailkapenak ez du dena erakusten, eta honako datu hau ere kontuan hartzekoa da: ligan talde bien arteko partidua biak Basket Navarrak irabazi ditu.

Lehenengo kanporaketa

Igoera faseko lehenengo kanporaketan, Teknei Zornotzak nagusitasunez kanporatu zuen La Roda

taldea. Kanpoan bost puntugaitik bakarrik nagusitu ziren (73-78), baina etxean goitik behera agindu zuten: 69-48. Basket Navarrak, ostera, gorriak ikusi zituen final-zortzirenetan. Etxean hiru puntuko aldea bakarrik lortuta (79-76), Cartagenan asko sufritu zuten eta kanpoan geratzeko zorian egon ziren (66-65).

Urrezko Ligara igotzeko fasea urteko bigarren hitzordu inportantea du Teknei Zornotzak, martxo hasieran Zilarrezko Leba Kopa irabazi zuen eta.



Durango Udaleko eta Bidezabaleko ordezkariak eguazteneko prentsurrekoan.

Lehen Mailako atletarik onenak Durangon lehiatuko dira zapatuan

Bidezabaleko emakumeen taldea da euretariko bat; Ohorezko Mailara itzultzea du helburu

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Bidezabal Atletismo Taldeak 40 urte betetzen ditu aurren eta Ohorezko Mailara igotzea erregaluri onena litzateke. Horretarako bidea etxean hasiko dute, zapatuan. Izan ere, Durango atletismo pista lehenengo jardunaldiko saio bat hartuko du, 17:00etan hasita.

Bidezabalegaz batera, emakumeen beste hiru talde batuko dira: Kantabriako Pielagos, C.A. Valladolid eta Aragoiko Hinaco Monzon. Bidezabalek lehenengo edo bigarren geratzea du helburu. Horren ondoren, bigarren jardunaldi bat

egongo da, maiatzaren 14an. Punturik gehien batzen dituztenak igoera fasera sailkatuko dira, eta besteak jaitsiera fasera.

Bidezabalek hiru urte daromatza Lehenengo Mailan. Askoz gehiago eman ditu kategoriarik handienan, Ohorezko Mailan: 25 urte, hain zuzen ere. Beraz, hara itzultzea dute helburu aurren. "Horixe da gure maila. Lehenengo Mailan gaudenean igotzeko eta Ohorezko Mailan gaudenean ez jaisteko borrokatzea", adierazi zuen Juan Ignacio Hernandez Bidezabaleko presidentek ekimeneko

aurkezpenean.

Beste batzuen artean, Judith Otazua gernikarra, Julene Bouzo ermuarra eta Zuriñe Celis trapagarandarra dira taldeko atletarik indartsuenak eta punturik gehien batzeko ardura dutenak.

DKT-k mailari eustea helburu

Durango Kirol Taldea ere Lehenengo Mailan dabil, baina kasu honetan gizonetan. Iaz lortu zuten igoera eta aurren mailari eusteko borrokan ibiltzea dute helburu. Lehenengo jardunaldian Huescan lehiatuko dira, zapatuan.

Doako autobusak asteburuan Amorebieta animatzera joateko

Domeka eguerdian Fuenlabradaren kontra jokatuko du, Lezaman. Porrotak amildegiaren ertzean utziko luke



Amorebietako jokalariek Real Sociedad B-ri sarturiko gola ospatzen, joan zen asteburuan.

FUTBOLA • J.D.

Smartbank Ligan hamabost puntu (bost jardunaldi) geratzen dira jokoan eta Amorebietak zazpira du salbazioa. Zaleen babesa inoiz behar izatekotan, domeka honetan behar dute. Horren jakitun, klubak doako autobusak ipini ditu Lezamako partidura joateko. Partida 14:00etan izango da, Fuenlabradaren kontra. Autobusak 13:00etan irtengo dira, Osasun Zentroaren pareko geroaldetik. Txartela aurretik hartu behar da. Klubeko denda ofizialean, Xiberu tabernan eta Autocares Olearen bulegoan eskuratu daitezke, za-

patura arte. Bestalde, bazkide bakoitzak pertsona bi gonbidatu ditzake partidua doan ikusteko.

Txartelak aurretik erretiratu behar dira; besteak beste, klubeko denda ofizialean

Sarrerak eta gonbidapenak aurrez ateratzeko epea gaur amaitzen da. Partiduaren egunean bertan ere erretiratu daitezke, Lezamako leihatilan.

Jokaldia

Egin dezatela amets

Txikia nintzenean, etxean bizikletari buruz berba egiten egoten ginen beti. Aitak eta osabak kontatutako istorioak nire buruan imajinatzen nituen eta haiekin amets egiten nuen. Harrezkero, joan dira urte batzuk baina ordukoa errepikatzen ari da orain. Gaur egun, gure etxean berdina pasatzen da. Aitaren paperean neu aritzen naiz eta alabak adi entzuten ditu nik esandakoak. Eta, jakina, entzundakoak entzunda, 5 urterekin, bizikletari ekiten dio.

Egoera horrek animatuta, Abadiñon umeekin txirrindulari elkarte sortu dugu eta umeekin bizikletarekin jolasten eta ibiltzen hasi gara. Hain harrera ona eduki du taldeak, ekimen asko gauzatu ditugula eta bizikletaren bidez talde izaera, berdintasuna eta beste hainbat balio lantzeko aukera izan dugu familia



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

Umetan aitak eta osabak kontatutako istorioak nire buruan imajinatzen nituen; haiekin amets egiten nuen

Itzulian munduko emakumerik onenak arituko dira; txirrindulari izan nahi duenak badu zerekin amestu

giroan. Umeak pozik ibiltzen dira eta ni asebate egiten nau hori ikustek. Eta izaten da momentu bat ilusio berezia egiten diena, zoriontsuen uzten dituen, eta momentu hori da ekimenetan talde nagusiko neska profesionalak agertzen direnekoa. Eta, une batez, ni neu ere ume txiki sentitzen naiz, eta telebistan txirrindulari profesionalak ikustek

eragiten zidan zirrara gogoratzen dut; euren azalean jartzen nintzen, errepi-dean imajinatzen nuen neure burua, eta kirolari garrantzitsu sentitzen nintzen. Zirrara huraxe bera ikusten dut gaur egungo umeengan. Gainera, Ukrainako eta Errusiako neskak etxean hartzen ditugunean, euri ere poztasun handia nabaritzen zaie. Euren sorterrietako gerra apur bat ahazteko balio die.

Maiatzean Itzulia Women lasterketa lehiatuko da eta gure talde profesionala gonbidatuta dagoenez, euskal zale guztiek ikusi ahalko gaituzte bide ertzetik, World Tourreko taldeekin konpetitzen. Munduko txirrindularirik onenak euskal errepideetan ibiliko dira euren onena ematen. Gainera, Itzuliko etapa bat Durangaldean amaituko da, Mallabian. Beraz, txirrindulari izan nahi duenak badauka non egon eta zerekin amestu.

DURANGALDE

Astolako kartzela

1576an, Astolako etxea Durangoko Merindadeko gune politiko-administratiborik garrantzitsuenetarikoa bilakatu zen, bertan ipini zituzten-eta entzungela eta kartzela. Egungo eraikina 1784an eraberritu zuten. Solairu nagusian gizonezkoen kartzela eta Merindadeko Tenientearen gela zeuden; ganbaran, emakumezkoen kartzela zegoen.



KO TXOKOAK ?



**Zornotzako
Karmeldarren Komentua**

1712an, Juan de Larrearen eta Teresa Undarraren aginduz, Karmeldarren Komentua eraiki zuten Zornotzan. Kanpandorre garai bat gailentzen da horma nagusian. Barruko osagairik esanguratsuenak erretaula biak dira: Batean Ecce-Homo eta bestean Anuntziazioaren ozka-irudiak daude.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Promozio berria. Udaletxe ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Kalitatezko materialak. **C.E.E=A 230.000-TIK HASITA.**

// AUKERA

IURRETA: Uralde. Etxebizitza altua. 3 logela eta komuna. Igogailua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. **140.000 €**

ZALDIBAR: Bilbao etorbidea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea. **C.E.E=F 118.000 €**

IURRETA: Dantzari. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=F 135.000€**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=F 130.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN INAZIO: Etxebizitza altua. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=A 275.000 €**

TRONPERRI: 120 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Ganbara. **249.000 €**

FRANZISKO IBARRA: Etxebizitza altua. 117 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela handia. Ganbara. Garajea. **C.E.E=E 305.000 €.**

ASKATASUN ETORBIDEA: 82 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Hegoaldea. Trastelekua. Garajea aukeran. **C.E.E=E 235.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F 145.000 €.**

SASIKOA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Igogailua. **C.E.E=G 145.000 €**

LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. **C.E.E=F 250.000 €.**

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. **C.E.E=F 165.000€**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 190.000 €**

F.J.DE ZUMARRAGA: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela-jangela. Terraza. **C.E.E=E 195.000 €**

ASTARLOA (JESUITAK): 100 m2. 3 logela, komuna eta sukaldea. Terraza. Ganbara. **C.E.E=E 160.000 €**

ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela, eta egongela. Terraza. Lokal komertziala. Garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m2-ko lorategia. Lanabesentzako txabola. **390.000 €.**

MADALENA: 132 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

MATIENA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **CEE=G.120.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

ZALDIBAR: 95 m2. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €.**

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADIÑO

30 m2-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIKUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 73,77 m² 2 logela

ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoa-iparralde) Herriko irteeratik gertu, zonalde berdeak, zonalde lasaia. Egoera onean. 4,48 m2-ko ganbara barne. Garajearekin + 17.000 €.

235.000€ C.E.E:E

DURANGO 71,95 m² 3 logela

MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta eskegitokia. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. 6 m2-ko trastelekua. 11,47 m2-ko garajea. EZIN HOBEA.

249.000 € C.E.E:D

DURANGO 106,22 m² 4 logela

TROMPERRI: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia eta galeria. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-mendebaldea) Berrikuntza batzuk behar ditu. Gas naturala. Igogailua. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuetatik gertu. 8 m2-ko ganbara.

249.000€ C.E.E: Bidean

IURRETA 70 m² 3 logela

ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu.

173.000 € C.E.E: F

DURANGO 85 m² 3 logela

ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m2-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.

249.000 € C.E.E: Bidean

ABADIÑO 70,4 m² 4 logela

ARLOZABAL: 70,4 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 10,82 m2-ko trastelekua eta 19,32 m2-ko garajea.

187.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SAN INAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **275.000 € / E.E.Z=A**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m2-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

ABELETXE AUZOA: Etxea eraikitze. 1.166m2-ko lursaila.

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze. baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. balkoia. Ganbara. Igogailua. **160.00 € / E.E.Z=G**

Botikak

BARIKUA, 29 · 09:00-22:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 30 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - Durango

CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 1 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 2 · 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 3 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 4 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 5 · 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Eskelak



Angel Alberdi Artetxe

Iurretan hil zen, 2022ko apirilaren 27an, 85 urte zituela

Aita zure bertsoak daukadaz gogoan erakutsi zenidan txikitan bertsotan entzun bertso hau mesedez zagozen lekuan beti eramango zaitut nere bihotzean.

Beti egongo zara aita umoriaz eta zeure kantuaz akordatuko naz. Beti ibiltzen zinen berbetan euskeraz zure heriotza hartu dugu guk tristuraz.

Familiakoak.

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak Berrizko **Gari Velerdaseri** eta Iruñan bizi dan bere izeko Erlea Velerdaseri euren bigarren eta 41. urtegunean. Musu bat anaia Lier eta lehengusina Izaro eta loiba Gari, Lier eta alaba Izaroren partez. Eta batez ere, amama eta ama Maribiren partez.



Zorionak, **Irati**, zure hamalagarren urtegunean. Egun polita eta alaia izan zure aita Lander, ama Ana, anaia Endika, Eder eta Luzia lehengusu-lehengusina, aitteitte Carlos eta Luis, amama Enkarna eta beste senideen partez.



Maiatzaren 3an Zaldibarko **Oier Abinek** 7 urte egiten ditu. Zorionak eta besarkada handi bat eta muxu pilo bat aitate Valentin eta amama Mari Carmenen partez, Riojatik.



Zorixonak, gure **Karreteru**, tudankak nozko? Bueno ganaue... ailegauko ete da egunen baten; bitartien txittakin egurre ta ia zelebretako "la rosin" akziñuetatik tiretu ta madalena batzutara inbitetazuzen kuadrillako jatun zein inguruko gaderu miskiñek! A, ta lagun bezala esateiau, oain bai, jartzak...



Zorixonak, politxa! Ondo-ondo pasau zure egunean eta disfrutau! Jarraitxu zaien modokua ixeten! Mosu handi bat etxeko danon partez!



Zorionak, **Aratz**. Musu handi bat ama, Haizea, aita, Jabi, Julen, Lur, Oreo, Goku, Boo, Maguie eta gainontzeko familiaren partez.



Aske sentitu aske izateko Mundu zoro honetan 50 urteko zoro ederra zarelako! Etxetik horren gertu eta hain urrun, Gure artean nahi zaitugu!

ZAPATUA 🌡️ 19° / 9° ☁️

DOMEKA 🌡️ 19° / 9° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 16° / 9° 🌧️

MARTITZENA 🌡️ 14° / 9° 🌧️

EGUAZTENA 🌡️ 16° / 10° 🌧️

EGUENA 🌡️ 16° / 10° 🌧️

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1[#]



DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

2[#]



ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susa)

3[#]



BASA
Miren Amuriza (Elkar)

4[#]



IZURDEEN AURREKO BIZITZA
Kirmen Uribe (Susa)


5[#]



FAITH
Lander Garro (Elkar)

“Ez gaude ohituta ileak kentzen ez dituen emakumea ikustera”

Goiuri Azkarate elorriarra orain urte bi hasi zen modelo lanak egiten, kasualitatez



Goiuri Azkarate Tornero

Argazkigintzako modeloa
ELORRIO | 2001

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Goiuri Azkaratek Madrilen eta Bartzelonan lan egiten duen agentzia batez gain, arropa eta makillaje markentzako argazkigintzako modeloa da eta Artearen Historia ikasten du Gasteizen. Dioenez, ez da moda tententzietatik jarraitzen dien horietarikoa.

Ereduak apurtzen dituen modeloa zarela esan daiteke?

Bai. Azken finean, ez gaude ohituta ileak kentzen ez dituen emakumea ikustera, depilatzen ez den neska bat ikustera.

Inoiz pentsatu duzu heldu zaren lekura helduko zinela?

Egia esan, ez. Modelo izateko auke-

ra kasualitatez sortu zitzaidan. 17 urtegar argazki saio bat egiteko go-goia izan nuen eta aurreztuta nuen diruagaz horrelako bat egin nuen argazkilari batez gain. Proba egin gura nuen, besterik ez. Argazkilariak bere profilean ipini zituen nire argazkiak, eta beste argazkilari batzuen mezuak jasotzen hasi nintzen, kolaborazioak eskaintzeko. Orduan, modeloa izateko aukera izan nezakeela pentsatu nuen, agentzia batez gain lan egin eta probatzeko aukera. Halaxe hasi nitzen orain nagoen agentzian, orain urte bi eskas.

Umetan barre egiten zizuten bekainen-gaitik eta hortz bananduak izateagaitik.

Umetan ileak kendu gura nituen eta 'normaltasun' eredu horren barruan sartu. Bekainak depilatzeke eskatu nion amari 10 urtegar

tik. Edertasun kanonek presio handia eragin dute zugar?

Gazteagoa nintzenen bai. Beste umeek barre egiten zidaten. Umetan, gainerako umeek esandakoa sinisten duzu, are gehiago behin eta berriro errepikatzen badizute. Hori guzti hori txarto bizi izan

nuen. Ileak kendu gura nituen eta 'normaltasun' eredu horren barruan sartu. Bekainak depilatzeke eskatu nion amari 10 urtegar. Zenbat eta arruntagoa izan orduan eta barre gutxiago egingo zidatela pentsatzen nuen. Autoestimuan eragin zidan, eta terapiari hasi nintzen segurtasuna lantzeko. 18 urtegar gehiago ez depilatzea erabaki nuen.

Erabaki horretan eragina izan zuen Unibrow Movement (bekain bakararren aldeko mugimendua) sustatu duen Sophia Hadjpanteli modelo estatubatuarra ezagutzeak.

Bai. Hadjpanteli ezagutzeak ikuspegi zabalagoa izatea suposatzen niretzat. Instagramen jarraitzen hasi nintzaion eta inspirazio izan nuen erabakia hartzeko. Segurtasun handia zuen bere burua-

Sophia Hadjpanteli ezagutzeak ikuspegi zabalagoa izatea suposatzen nuen niretzat. Instagramen jarraitzen hasi nintzaion eta inspirazio izan nuen bekain bakararra uzteko

rengan, oso emakume ederra zela ikusten nuen, eta ni ere bera bezain polita izan nintekeela pentsatu nuen. Zergaitik ezin dut nik berak besteko segurtasuna izan neure buruarengan? Ez gaude ohituta bera lako emakumeak ikustera, eta ez zaigu sartzen buruan horrelakorik egon daitekeenik.

Zein duzu etorkizuneko erronka?

Modelo lez lan garrantzitsuenak egitea gura nuke. Izugarria litzateke. Urteren batean Madrilera edo Bartzelonara joatea gustatuko litzaidake, probatzera. Euskal Herrian ere irteten dira lanen batzuk, baina hemen ez dago moda industria handirik.

Moda industria aldatzen hasi dela diozu.

Orain urte batzuk, modelo denak berdinak ziren, oso kanonikoak: altuak, argalak, aurpegiera beretsukoak... Orain askotarikoak daude, asko bilatzen da aniztasuna.

Lau-hortza

Alina Ahtamon Medikua



Gizazioa

Askok badakizue hitzen esanahia aztertzea gustatzen zaidala. Oraingoan, “umanitate” edo “gizazio” hitzaren esanahia aztertzerantz nator: *beste pertsonetako maitasuna, ulermena edo elkartzasuna sentitzeko gaitasuna*. Ez dakit ni naizen, edo munduan zehar gertatzen diren “krisi” guztiak (pandemia, gerra, inflazioa, aldaketa klimatikoa), edo agian beti izan da horrela, eta ni, orain baino ez naiz konturatzen, baina uste dut gizakiak gizaki izateari utzi diola. Joan den astean, 24 orduko guardia amaitu ondoren, supermerkatuara joan

Gizonak "ez dizut lagunduko" esaten zidan bitartean, sinestezina iruditu zitzaidan

nintzen, baina bertara iritsi nintzenen itxita zegoen oraindik. Argiak piztuta lo geratu nintzen eta esnatu nintzeneko supermerkaturako atea zabaltzen ari ziren, baina nire autoa ez zen martxan jartzen. Kotxetik atera eta supermerkatu sartzeko ari ziren hainbati laguntza eskatu nien. Laguntza eskatu nien 10 gidarietatik inork ere ez zidan lagundu nahi izan. Aparkalekuan sartu eta furgoneta zuri bat ikusi nuen. Gidariak leihoa jaitsita zuen. Gizonak "ez dizut lagunduko" esaten zidan bitartean, sinestezina iruditu zitzaidan gertatzen ari zitzaidana. Azkenik, beste gizonetako batek, ni hain etsita ikusita (negarrez hasia nintzen, oso nekatuta nengoen) nigana hurbildu eta lagundu egin zidan. Eskerrak oraindik badagoen gizatasun tanta bat munduan.

Osasun
larrialdia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



Mikroinformatika
sistemak eta sareak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



Erizaintzako
zaintza
osagarriak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



Gizarte eta kirol
animazioaren
irakaskuntza

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



**Lan
bide**
HEZIKETA



Ate irekiak

Izena eman
943 77 20 25

Maiatzak 3
18:00etan
Ferixalekuan
(Arrasate)

ai arizmendi
ikastola

pro
EGUASMOA